

**ETXEKO ETA GENERO
ARTEKO
INDARKERIAREN
AURKAKO GIDA
PRAKTIKOA**



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA
ETXEKO ETA ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
SARRERA	4
1.-KRIMENAK AUZIPERATZEKO LEGEAREN ERREFORMAK	5
1.1.-BEHIN BEHINEKO ESPETXEALDIA	5
1.1.1.- 502. artikulua: eskumena eta proportzionaltasuna	5
1.1.2.- 503. artikulua: betekizunak	6
1.1.3.- 504. artikulua: iraupena	8
1.1.4.- 505. artikulua: prozedura eta bertaratzea	11
1.1.5.- 506. artikulua: espetxeratze autoa	13
1.1.6.- 507. artikulua: errekurtsioak	14
1.1.7.- 508. artikulua: etxean edo beste zentro batean atxilotzea	15
1.1.8.- 509. eta 510. artikulua: atxilotuen eta presoen inkomunikazioa	15
1.1.9.- 511. artikulua: espetxeratze eta aske uzteko autoak egikaritzea	17
1.1.10.- 529. artikulua: behin-behineko askatasuna	18
1.1.11.- 530. artikulua: behin-behineko askatasunean dagoenaren bete beharrekoak	19
1.1.12.- 539. artikulua (3. eta 4. pasarteak): inputatuaren baldintzak larriagotzea	19
1.1.13.- 544. bis artikulua (azken pasarteak): badaezpadako neurria ez betetzea	20
1.2.- ETXEKO INDARKERIAREN ALORREKO DELITU EDO FALTAGATIKO EPAI ARINAK.....	21
1.2.1.- 795. artikulua: ezarpen eremua	21
1.2.2.- 796. artikulua: Polizia Judizialaren jardunak (Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideak zitatzeari buruzko)	23
1.2.3.- 797. artikulua: premiazko eginbideak	26
1.2.4.- 798. artikulua: burututako eginbideen zein badaezpadako neurrien nahikotasunari buruzko alderdien entzunaldia	28
1.2.5.- 801. artikulua: adostasuna	29
1.2.6.- 962. artikulua: Guardiako Epaitegiaren aurreko Falta-Judizioa	31
1.2.7.- 965. artikulua: guardiako zerbitzuak dirauen bitartean Falta-Judizioa egiterik eza	33
1.2.8.- 966. artikulua: epaiketarako zitazioak	34
1.3.- BIKTIMAREN ESTATUTUA ZIGOR BIDEZKO ESPAINIAR PROZESUAN	36
1.3.1.- Prozeduraren hasierako eskubideak	35
1.3.2.- Kaltea konpondua izateko eskubidea	36
1.3.3.- Duintasunerako eskubidea	36
1.3.4.- Informaziorako eskubidea	36
1.3.5.- Babeserako eskubidea	37
1.3.6.- Alderdiaren izaera	37
2.- ZIGOR KODEAREN ERREFORMAK	38
2.1.- ALDERDI OROKORRAREN ERREFORMAK	38
2.1.1.- 37. artikulua: etengabeko lokalizazioaren zigorra	38
2.1.2.- 39. artikulua: eskubideak murrizteko zigorrak	39
2.1.3.- 40. artikulua: eskubideak kentzen dituzten zigorren zerrenda	40
2.1.4.- 46. artikulua: guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo etxean jasotzea gauzatzeko desgaitasuna berezia	41
2.1.5.- 48. artikulua: biktimarengana edo senidearengana hurbiltzea debekatzeko zigorra	42

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

2.1.6.- 49. artikulua: <i>gizartearentzat lan egiteko zigorra</i>	43
2.1.7.- 57. artikulua: <i>epaietan ezarri beharreko debekuak</i>	44
2.1.8.- 83. artikulua: <i>zigorraren betearazpena etetea</i>	46
2.1.9.- artikulua: 84. artikulua: <i>zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea</i>	47
2.1.10.- artikulua: 88. artikulua: <i>askatasuna kentzen duen zigorra ordezte</i> a	48
2.2- ALDERDI BEREZIAREN ERREFORMAK	49
2.2.1.- 153. artikulua: <i>etxeke ingurunean eragindako lesioen delitua</i>	49
2.2.2.- 173.2 artikulua: <i>ohiko indarkeriaren delitua</i>	50
2.2.3.- 468. artikulua: <i>zigorra edo neurria ez urratzen deneko delitua</i>	53
2.2.4.- 617. artikulua: <i>tratu txarren falta</i>	54
2.2.5.- 620. artikulua: <i>mehatxuak, derrigortzea, irainak edo bidegabeko isekagatiko falta</i>	54

SARRERA

Etxeko eta Genero arteko Indarkeriaren aurkako Behatokiaren alorrean, gai honetako Aditu Taldeak honako Gida egin du. Aipatutako talde hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendaturiko Epaileez osatuta dago.

Horrekin, eremu honetan diharduten profesionalei tresna egokia eskaini nahi zaie, Auziperatze Kriminalari buruzko Legearen erreforma berriei ekiteko moduan.

Ikuspegi praktiko argi batez eginda, hautatutako sistematikari esker Gida erraz kontsultatu daiteke:

- **Analisia artikuluz artikulatu egiten da.**
- **Artikulu bakoitza konparatzeko koadro batekin hasten da.**
 - **Ezkerraldeko zutabean aurreko erredakzioa jasotzen da.**
 - **Eskumaldeko zutabean erredakzio berria agertzen da, letra larriz sartutako berrikuntzak nabarmenduz.**
- **Ondoren, erregulazio berriaren alderdirik azpimarragarrienak jasotzen dira.**

1.- ROZEDURA KRIMINALAREN LEGEAREN ERREFORMAK

1.1.- BEHIN-BEHINEKO ESPETXEALDIA

- Eragindako manuak
 - o 503, 504, 505, 506, 507, 508, 509, 510, 511 529, 530, 539 eta 544 bis artikulua
- Hurrengo legeek eragindako aldaketak:
 - o **Urriaren 24ko 13/2003 Lege Organikoa** (BOE: urriak 27) argitaratu ondorengo egunean indarrean sartu zen.
 - o **Urriaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa** (BOE: 2003ko urriak 23), Zigor Kodea aldarazteko, argitaratu ondorengo egunean indarrean sartu zen.
- María Jesús Millán de las Heras eta Pilar Alhambra Pérez Andereek aztertutako artikulua.

1.1.1.- 502. artikulua: eskumena eta proportzionaltasuna

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>Auziperatzea sumariopean dagoen bitartean, espetxeratzea ebatzi dezaketen epaile bakarrak honako hauek izango dira: Instrukziokoa, lehenengo eginbideak osatzen dituen, edo komisioren arabera zein behin-behinekoz haren funtzioak burutzen dituen.</p>	<p>1. Instrukzioko Epailea, zigor arlokoa edo auzibidea ezagutzen duen epaitegia izango dira espetxeratzea ebatzi dezaketenak.</p> <p>2. Behin-behineko espetxealdia modu objektiboan beharrezkoa denean baino ez da ezarriko, hurrengo artikuluetan ezarritakoari eutsiz. Halaber, behin-behineko espetxealdiaren bitartez askatasunerako eskubidea gutxiago murriztu dezaketen bestelako neurririk ez da egon behar, horien bitartez helburu berdinak lortu daitezkeenean.</p> <p>3. Epaileak edo epaitegiak behin-behineko espetxealdia ebazteko honako alderdiak kontuan hartuko ditu: inputatuarentzat honako neurriak eduki ditzakeen ondorioak, bere inguruabarrak eta jardunbideen helburu diren egitatearenak hala nola ezarri daitezkeen zigorraren tamaina ere.</p> <p>4. Ez da espetxeratzeko agindua inolaz ere ezarriko, egindako ikerketen arabera, egindakoak delitua osatzen ez duela edo justifikatzen duen zergatia zegoelarik egin zela arrazoiz ondorioztatzen denean.</p> <p style="text-align: center;"><u>502. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN NABARMENDU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Prozedura kriminalaren Legearen 502. artikulua xehetasun handiagoekin eta zehazkiago eta arautzen du, Botere Judizialaren egitura organiko berriarekin bat etorritz, inputatuen, akusatuen eta zigortuen behin-behineko espetxealdia adosteko eskumen berriaren arabera.
2. Gainera, egokitasuna, beharizana eta proportzionaltasunaren irizpideak ezartzen ditu, bere hitzetan ulertu beharrekoak; izan ere, horiek izango dira funtsezko eskubideak mugatzeko edo murrizteko eskudun juezak edo epaitegiak ebatzi dezaketen neurri oro zuzenduko dutenak.
3. Edonola ere, behin-behineko espetxealdia debekatuta geratzen da egitateak delitua osatzen ez duenean edo bera justifikatzen duen arrazoi bat ematen bada. Beste hitzetan esanda, behin-behineko espetxealdia adostu daitekeen egoera bakarra ikerketen arabera egitate tipikoa eman dela ondorioztatzea denean aurkitzen dugu, hots, Zigor Kodean delitutzat hartutakoa, zuzenbidearen aurkakoa izanik.

1.1.2.- 503. artikulua: betekizunak

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>Behin-behineko espetxealdia ebazteko honako inguruabarrak eman behar dira:</p> <p>1º Auzibidean delituaren izaera daukan egitatea egotea.</p> <p>2º Horrek espetxealdi txikia baino handiagoa den zigorra ezarri izana, edo espetxealdi txikiko edo murrizteko zigorra erabaki arren, Epaileak behin-behineko espetxealdiari egoki baderitzo. Hori guzti hori honako alderdiak begiraturik: inputatuaren aurrekariak, egitatearen inguruabarrak, hori egin izanak gizartean sorrarazitako alarma edo antzeko egitateak burutzeko maiztasuna. Kartzelatze handikoa baino murriztagoa den zigorra aurreikusten duen delitua emanez gero, epaileak behin-behineko espetxealdia ebatzi duenean, bere irizpidearen arabera, efekturik gabe utzi ahal izango du. Horretarako, kontuan hartutako inguruabarrak aldatu behar izan dira. Horrelakoetan, akusatua aske uztea ebatziko du, fidantzarekin edo honelakorik gabe.</p> <p>3º Auzibidean arrazoi nahikoak agertu behar dira espetxeratzeko agindua jaso behar duenari delituaren ardura kriminala leporatu ahal izateko.</p>	<p>1. Behin-behineko espetxealdia honako kasuotan soilik ebatzi daiteke:</p> <p>1ª Auzibidean gehienez bi urte edo gehiagoko espetxealdiaz zigortzeko moduko delituaren ezaugarriak biltzen dituen egitate bat edo gehiago agertu behar dira edo, bestela, askatasuna murrizten duen zigor laburragoa, inputatuak, dolo-delituagatiko zigorraren ondorioz, ezereztatu gabeko edo ezereztagarriak diren aurrekari penalak edukiz gero. Egotzitako delituak bat baino gehiago direnean zigorrak ezartzeko legeriak xedatutakoari jarraituko zaio, Zigor Kodearen I Liburuaren III tituluaren II atalburuaren 2. Sekzioan esandakoaren arabera.</p> <p>2ª Auzibidean nahikoak diren arrazoiak agertu behar dira espetxeratzeko agindua jasotzen duen pertsonari delituaren ardura kriminala leporatzeko.</p> <p>3ª Behin-behineko espetxealdiaren bidez hurrengo helburuetarikoren bat lortu nahi izatea:</p> <p>a) Prozesuan inputatuaren presentzia bermatzea, berak ihes egiteko arriskua dagoelako ondorio arrazoitua ateratzen denean.</p> <p>Arrisku hori dagoela baloratzeko asmoz, honako alderdiei begiratu zaie: egitatearen izaera; inputatuari ezarri dakioken zigorraren larritasuna; familia, lana eta baliabide ekonomikoen egoerari; hala nola ahozko juizioa gertatzeko geratzen den denbora, batik bat, auziperatze arina egiteko prozedura ezarri behar den balizkoetan, lege honen IV liburuaren III tituluaren araututakoa.</p> <p>Arrazoi horregatik inputatuaren behin-behineko espetxealdia adostu beharko da, jardunetatik</p>

ateratako aurrekari penalak azterturik, aurreko bi urteotan edozein organo judizialek bera deitua eta bilatua izateko bi errekerimendu luzatu duenean. Horrelakoetan, atal honen lehenengo zenbakiak zigorra dela-eta ezarritako muga ez da baliatuko.

b) Auziperatzeko froga-iturri garrantzitsuak ezkutatuak, aldatuak edo suntsituak izateko arriskua ekiditea, funtsa duen arrisku zehatza ematen den kasuetan. Ezin izango da arrazoi honegatik behin-behineko espetxealdia ezarri arrisku hori defentsaren eskubidea egikarizetik edo inputatuak ikerketa burutzean erakutsitako lankidetzan faltatik soilik arrisku hori ondorioztatu nahi denean. Honako arriskua dagoela baloratzeko, inputatuak berez edo beste inoren bitartez, froga-iturrien jabe izateko hala nola besteengan eragina izateko duen gaitasunari begiratuko zaio.

c) Inputatuak biktimaren ondasun juridikoen kontra egiteko aukera ekiditea, batik bat, ofenditua 173.2 artikulua aipatzen dituen pertsonetariko bat denean. Horrelakoetan, atal honetako lehenengo zenbakiak xedaturiko zigorraren muga ezin izango da baliatu.

2. Halaber, behin-behineko espetxealdia adostu ahal izango da aurreko atalaren lehenengo eta bigarren zenbakietan ezarritako betekizunak ematen direnean, inputatuak bestelako delituak egitea ekiditeko asmoz. Arrisku hori baloratzeko egitatearen inguruabarrei hala nola burutu litezkeen delituen larritasunari begiratuko zaie. Arrazoi horregatik behin-behineko espetxealdia ezarri ahal izango da egotzitako dolo-delituak denean soilik. Edonola ere, lehenengo zenbakian ezarritako muga honako kasuan baliatu ahal izango da: inputatuaren aurrekariak hala nola Polizia Judizialak emandako edo eginbideetatik sortutako gainerako datuak eta inguruabarrak ere azterturik, inputatuak, beste inorekin lankidetzan eta era antolatuan, delituak burutzen edo delituari lotutako jardunetan dirauela arrazoiz ondorioztatu daitekeenean.

503. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ERREDAKZIO BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Artikulu honetan behin-behineko askatasuna ebazteko behar diren eginbeharrak jasotzen dira.
2. Lehenengo bi betekizunak aurreko erredakzioan bazeuden jasota. Hau da, egitateek delituaren izaera eduki behar dute, gehienezko zigorra espetxeko bi urte edo gehiago izanik. Bestela, inputatuak aurrekari penalak edukiz gero, zigor txikiagoa ere izan daiteke; betiere aurrekari horiek ezeztatzen ez badituzte edo ezeztatzeko aukerarik ez badago eta norbait delituaren ardura kriminala duelako ustea izateko arrazoi nahikoak eman behar dira auzian. Horrela, Zigor Kodearen arabera, egitatea bi urte edo gehiagoko zigorra duen delitua izateko indizio nahikoak agertu behar dira auzian, egitate hori pertsona jakin bati egotzi behar zaiolarik. Horren aurka askatasuna kentzen duen badaezpadako neurria hartuko da.
3. Dolo-delituak kontuan hartuko dira, baina egitate bat baino gehiago dagoenean berriz, Zigor Kodean ezarritako arauak modu abstraktuan burutan edukiko dituzte zigorraren gehienezko muga ezartze aldera.
4. Hirugarren atalak erredakzio berria dakar aurrekoarekin alderatuta. Hau da, behin-behineko espetxealdiak jarraitu beharreko helburuak zehazten ditu, ondoren zehaztutakoaren arabera: juizioan inputatutakoaren presentzia bermatzea ihes egiteko arriskua dagoela ondorioztatzen denean; frogak ezkututzea, suntsitzea edo aldaraztea ekiditea hala nola inputatuak biktimaren ondasun juridikoen kontra jardun ahal izatea saihestea. Beraz, Zigor Kodearen 173.2 artikuluan babestutako pertsonak eta beraien kontra burutu zitekeen indarkeria bereziki aipatzen dira. Horrela, esandako neurria ebazteko ez da zertan egon behar deliturako gehienezko bi urteko espetxealdiaren aipatutako gehienezko zigorraren muga.
5. Halaber, behin-behineko espetxealdia ebatzi ahal izango da lehen aipaturiko helburuetariko bat ere egon gabe, inputatuak bestelako deliturik egiteko arriskua saihesteko.

1.1.3.- 504. artikulua: iraupena

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>Behin-behineko espetxealdia ere ezarri beharko da aurreko artikuluen lehenengo eta hirugarren inguruabarra gertatzen direnean eta inputatua, bidezko arrazoirik eman gabe, Epaileak edo Epaitegiak egindako lehenengo deialdian ez bada bertarutzen, edo azken honek egoki deritzon guztietan.</p> <p>Hala ere, delituak espetxeratze txikikoa baino zigor handiagoa ezarrita eduki arren, errua egotzi zaion pertsonak aurrekari penalik eduki ezean edo horiek ezeztatuta dituela</p>	<p>1. Behin-behineko espetxealdiak aurreko artikuluan aurreikusitako helburuetariko edozein lortzeko behar den beste denbora iraungo du, neurria hartzea justifikatu zuten arrazoiak bere hartan dauden bitartean.</p> <p>2. Behin-behineko espetxealdia 1.3 artikuluen a) edo c) atalean edo aurreko artikuluen 2 atalean aurreikusitakoaren arabera ezarri denean, ezin izango du urte bat baino gehiago iraun delituak hiru urte edo</p>

ulertu behar denean edo justiziaren jardueratik kanpo geratzen saiatuko ez dela sinetsi daitekeenean eta, gainera, delituak alarmarik sortu ez badu eta eskudun Epaileak edo Epaitegiak bere jurisdikzioa duen lurraldean egin ohi ez direnetarikoa denean, inputatuaren askatasuna erabaki dezakete, betiere fidantzaren bidez.

Behin-behineko espetxealdian utzitako inputatuak bere kasua lehentasunez eta aparteko arretaz jorratzeko eskubidea dauka. Auzia ezagutzen duen Epaileak edo Epaitegiak eta Ministerio Fiskalak, bakoitzak dituen eginbeharren barruan, beren erantzukizunpean arduratuko dira behin-behineko espetxealdia behar dena baino gehiago ez luzatzeaz.

Behin-behineko espetxealdiak ez du iraungo hiru hilabete baino gehiago, atxiloteta nagusiko zigorra dagokion delituagatik auzia denean, ez eta urte bat gehiago ere, zigorra espetxealdi txikikoa denean, edo bi urtekoa zigorra handiagoa denean. Azken bi kasu hauetan, espetxealdia bi eta lau urtekoa izango da, hurrenez hurren; horretarako, auzia epe horietan epaitu ezin dela aurreikusteko moduko inguruabarrak emateaz gain, inputatua justiziaren jardueratik kanpo geratzeko arriskua egon behar da.

Behin-behineko espetxealdia luzatzeko neurria autoaren bidez hartuko da, inputatua eta Ministerio Fiskala bertaraturik. Inputatua zigortutakoan, behin-behineko espetxealdia luzatu daiteke epaian ezarritako zigorraren erdiaren mugaraino luzatu daiteke, errekurritua izan denean. Ez dira kontuan hartuko artikulua honetan ezarritako epeak zenbatzeari begira Justizia Administrazioari egotzi ezin zaizkion auziaren atzerapenak. Behin-behineko espetxealdia egiteko gehieneko epeak agortzeagatik askatasuna emandakoan, artikulua honen lehenengo paragrafoan xedatutakoa ere ezarri beharko da.

gutxiagoz askatasuna kentzeko zigorra ezarrita badauka, edo bi urte, askatasuna kentzeko deliturako adierazitako zigorra bi urte baino gehiagokoa izanez gero. Hala ere, auzia epe horietan ezin dela ebatzi aurreikusteko moduko inguruabarrak ematen badira, 505. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Epaileak edo Epaitegiak autoaren bitartez bi urte arteko luzapen bakarria erabaki dezakete, delituak askatasuna kentzeko hiru urte baino gehiagoko zigorra edukiz gero, edo sei hilabete artekoa, deliturako bi urte edo gutxiagoko zigorra ezarrita badago. Inputatua zigortuz gero, behin-behineko espetxealdiaren muga ebazpenean adierazitako zigorraren erdia izango da, epaia errekurritua izan baldin bada.

3. Behin-behineko espetxealdia aurreko artikulua 1.3º.b) atalean xedatutakoaren arabera erabaki denean, bere iraupena ezin da sei hilabetekoa baino luzeagoa izan. Hala ere, komunikaziorik gabeko espetxeratzea edo sumarioaren isilpekotasuna ebatzi denean, aurreko atalean zehazturiko epea baino lehen inkomunikazioa edo isilpekotasuna kenduz gero, epaileak edo epaitegiak behin-behineko espetxealdiaren balizkoa luzatzeko arrazoiak azaldu beharko du.

4. Behin-behineko espetxealdirako gehieneko epeak gainditzeagatik askatasuna emateak ez du erabakia baztertuko. Horretarako, inputatuak bidezko arrazoirik gabe epaileak edo epaitegiak adierazitako deialdietara agertzeari utzi behar dio.

5. Artikulu honetan adierazitako epeak zenbatzeko inputatuak arrazoi beragatik atxilotuta edo behin-behineko espetxealdian emandako denbora erabiliko da. Hala ere, zenbaketa horretatik kanpo utziko dira Justizia Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik auziak izandako atzerapenak.

6. Behin-behineko espetxeratzeko hartutako neurriak gehieneko iraupenaren herena gaintzen duenean, auziaz arduratutako epaileak edo epaitegiak eta ministerio fiskalak, hurrenez hurren, inguruabar horren berri emango diote Gobernu-Salako presidenteari eta dagokion epaitegiko fiskalburuari, jarduerak lehenbailehen burutu daitezen behar diren neurriak hartzeko asmoz. Ondore horietarako, prozeduraren izapideak lehentasuna edukiko du gainerakoen aurrean. *(15/2003 LOri erantsitako paragrafoa)*

504. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Prozedura kriminalaren Legearen 504. artikulua behin-behineko espetxealdiaren epea jasotzen du, aurrekoak egiten zuen bezala. Horretarako, lehenengo paragrafoan klausula orokor bat ezarri du; horren arabera, neurria hartzeko bidea eman zuten helburuek eta arrazoiek dirauten bitartean, indarrean jarraituko du. Hala ere, legegileak jarraian denborazko muga batzuk ezarri ditu.

2. Denborazko muga horiek honako hauek dira:

- Behin-behineko espetxealdia hartu baldin bada prozesuan inputatuaren presentzia bermatzeko edo bestelako delituak egitea nahiz biktimaren ondasun juridikoen kontra jardutea ekiditeko -arlo honetan kokatu behar dira ustezko tratatu txarrak-, horren iraupenak ezin du urtebetea gainditu delituak askatasuna kentzen duen zigorra hiru urtetan edo gutxiagotan ezarri bada, edo bi urte delitu horretarako askatasuna kentzen duen zigorra hiru urte baino gehiagokoa denean.
- Behin-behineko espetxealdiaren luzapena ohiko eran aurreikusitako epeetan auzia juzgatu ezin denean, akusatzaileek eskaturik eta bertaraturik egin behar da, eta bi urteko epe batez delituak askatasuna kentzen duen hiru urtetik gorako zigorra ezarrita badauka, eta sei hilabeterainoko epea berriz, delituari zigor berdina edo txikiagoa esleitu bazaio.
- Kondena-epaia errekurrituz gero, benetan ezarritako zigorraren mugaraino luzatu ahal izango da.
- Behin-behineko espetxealdia frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldaraztea ekiditeko erabaki bada, ezin izango du sei hilabete baino gehiago iraun.
- Epeak zenbatzeko inputatua atxilotuta edo behin-behineko espetxealdian emandako denbora kontuan hartuko da. Hala, ez dira zenbatuko Justizia Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik izandako atzerapenak.
- Komunikaziorik gabeko behin-behineko espetxealdia edo sumarioaren isilpekotasuna ebazten denean, egoera hura edo presoaren inkomunikazioa kentzen denean, neurri hori eragin zuten helburuek iraungo dute eta, baliabideak tratatzean ikusiko dugun bezala, auto hori errekurritu ahal izango da.

Behin-behineko espetxealdirako gehienezko epeak agortzeagatik askatasuna ematen denean, neurria berriro hartu daiteke, inputatua deialdian bidezko arrazoirik gabe agertzen ez bada.

1.1.4.- 505. artikulua: prozedura eta bertaratzea.

Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua	Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa
<p><i>504 bis 2 artikulua</i></p> <p>Atxilotua Instrukzio Juezaen edo auziaz arduratutako epaitegiaren esku jartzen denetik, berataz arduratutako organoak Ministerio Fiskalaren, bertaratutako akusatzaileen eta inputatuaren entzunaldia deituko du hurrengo hirurogeita hamabi orduotan, inputatuarentzat fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna ezartzen duenean izan ezik. Inputatuak Abokatuaren laguntza jasoko du, berak aukeratutakoa edo ofizioz izendatua.</p> <p>Ministerio Fiskalak eta bere abokatuaz lagunduriko inputatuak agertu beharko dute. Entzunaldi horretan frogatzeko baliabide guztiak proposatu ditzakete, egintzan bertan edo hurrengo hogeita lau orduotan aurkezteko, aurrez aipaturiko hirurogeita hamabi orduko muga inolaz ere gainditu gabe.</p> <p>Entzunaldi horretan alderdietariko batek nahi izanez gero, Epaileak behin-behineko espetxealdia edo askatasunari buruzko erabakia hartuko du. Alderdietariko inork ez badu horri buruzko ezer eskatu ezean, Epaileak halabeharrez erabakiko du atxiloaldiaren amaiera eta, jarraian, inputatua berehala askatuko du.</p> <p>Edozein arrazoigatik agerraldia ezin bada burutu, Epaileak behin-behineko espetxealdia edo askatasuna ebatziko du, horretarako balizkoak emanez gero eta ihesari jotzeko arriskua dagoela uste badu; hala ere, berriro deitu behar izango du hirurogeita hamabi orduko epean, agerraldia ez egiteari loturiko arrazoia dela-eta behar diren diziplinazko neurriak hartuz.</p> <p>Behin-behineko askatasuna bidezkoa den ala ez erabakitzeko xedatutako ebazpenen aurrean Audentzia Probintzialaren aurrean dei egiteko errekurtsioa jarri daiteke.</p>	<p>1. Fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna ebatzi denean izan ezik, atxilotua instrukzioko epailearen edo auziaz arduratu behar duen epaitegiaren esku jarriz gero, honek entzunaldia deituko du; bertan, Ministerio Fiskalak eta akusatzaileek inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo fidantzarik gabeko askatasuna ebatzi dezakete.</p> <p>Lege honen IV liburuko III tituluaren arauturiko prozeduraren balizkoetan, honako izapidea 798 artikuluan xedaturikoaren arabera gauzatuko da, entzunaldia lehenago egin denean izan ezik.</p> <p>Aurreko atalean aurreikusitako entzunaldia lehenbailehen burutu beharko da, atxilotutakoa epailearen esku jarri denetik 72 orduko epean, entzunaldia lehenago burutu denean izan ezik.</p> <p>2. Aurreko atalean aurreikusitako entzunaldia lehenbailehen egin beharko da, atxilotua epailearen esku ipini eta 72 orduko epearen barruan. Horretan, inputatua zitatuko dute, azken hau berak aukeratutako abokatuaz edo ofizioz deiturikoaz lagundurik agertu beharko delarik. Halaber, Ministerio Fiskala eta agerturiko alderdiak ere deituko dituzte bertara. Hala badagokio, atxilotu gabeko inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna eskatzeko zein ebazteko ere entzunaldia egin beharko da.</p> <p>3. Aipatu entzunaldi horretan, Ministerio Fiskalak edo alderdi akusatzaile batek inputatuaren behin-behineko espetxealdiaren edo fidantzarik gabeko askatasunaren ebazpena eskatuz gero, agertutakoek alegazioak egin eta frogatzeko baliabideak proposatu ditzakete, egintzan bertan edo aurreko atalean esandako 72 orduko epearen barruan gauzatu daitezkeelarik.</p> <p>4. Epaileak edo epaitegiak espetxealdia edo fidantza ezartzea bidezkoa den erabakiko du. Alderdietariko inork horrelakorik eskatu ezean, atxiloturiko inputatuaren berehalako askatasuna halabeharrez ebatziko du.</p> <p>5. Edozein arrazoi dela medio, entzunaldia ezin bada burutu, epaileak edo epaitegiak behin-behineko askatasuna erabaki ahal izango du -horretarako 503. artikuluan agertzen diren baldintzak eman behar direlarik-. Bestela, fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna erabakiko du.</p> <p>Hala ere, hurrengo 72 orduetako epearen barruan, epaileak edo epaitegiak entzunaldi berria deituko du, lehenengo entzunaldia ez egiteagatik dagozkion neurriak hartuz.</p> <p>6. Atxilotua auziaz arduratutako epailea edo epaitegia ez den epaile baten esku uzten denean eta atxilotua 72 orduko epean ezin badute bere esku jarri, arduratutako epailearen prozedura aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera izango da. Hala ere, behin epaileak edo epaitegiak eginbideak jasota, abokatuaz lagunduriko inputatua lehenbailehen entzungo du, dagokion ebazpena emanez.</p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Artikulu honek inputatuaren behin-behineko espetxealdia erabakitzeko aurretik eskatzen zen agerraldia arautzen du, Prozedura kriminalari buruzko Legean jasotakoaren arabera. Manu hori 1995. urteko legean sartu zen gure legerian. Bere arauketa zehatzagoa da, batik bat agerraldia deitzea ala ez erabakitzeko zalantzak zeuden balizkoak jasotzeko unean –fidantzapeko behin-behineko askatasuna ematen den kasuetan-, edo behin-behineko askatasuna erabaki zuen Epaileak agerraldia gauzatu ezin duen beste horietan, bere esku ipini ez zutelako.

2. Epaileak atxilotua jasotzen du eta, fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna erabakitzen duenean izan ezik, alderdiak deitu beharko ditu agerraldira joateko. Horrela, abokatuaz lagunduriko atxilotua, Ministerio Fiskala eta epaiketan agertutako gainerako alderdiak azaldu behar dira bertan.

3. Agerraldi hori 72 orduko epean egingo da, epe horretan beren eskariak egiaztatzeko dagozkion frogak praktikatzea eskatu dezaketelarik. Hala ere, artikulu horren hirugarren paragrafoak zehazten duenez, Ministerio Fiskalak edo alderdi akusatzaile orok inputatuaren behin-behineko askatasuna edo fidantzarik gabeko behin-behineko askatasuna eskatuz gero, bertaratutakoek egoki deritzen alegazioak aurkeztu edo frogatzeko baliabideak proposatu ditzakete, betiere hirurogeita hamabi orduko epean.

Behin-behineko espetxealdia edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna eskatu duen Ministerio Fiskalak edo alderdi akusatzaileak frogak praktikatzea eskatu ezin dutela ematen du, lehenago eskari hori egin zutela suposatzen baita, hain zuzen ere, badaezpadako neurria eskatzean. Hala ere, hau ez da onargarria agerraldiok arautzen dituen kontraesanaren printzipioa hausten delako; izan ere, prozesu txiki hauek beharrezkoak dira behin-behineko espetxealdia edo fidantzapeko askatasunaren moduko badaezpadako neurria hartzeko edo ukatzeko, baita fidantzaren zenbatekoa zehazteko.

4. Epaileak ere entzunaldia deituko du aske dagoen inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo fidantzapeko askatasuna erabakitzeko, hau da, inputatu batek deialdi judizialtan azaldu ezean, zitaziorako agindua atxilotzeko agindu bilakatzen denean, Prozedura Kriminalaren Legeko 487. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrelakoetan, Epaileak agerraldia deitu beharko du edo alderdiek eskatu.

5. Paragrafoak zehazten duenez, alderdietariko inork behin-behineko espetxealdia edo fidantza bat ezartzea eskatu ezean, Epaileak halabeharrez auziperatuaren fidantzarik gabeko askatasuna ezarri behar izango du, hots, aurretik zehazturiko betekizunetariko bat edo helburuetariko bat ematen dela deritzolako, Epaileak inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna ebatzi

dezakeela uste badu, orduan agerraldia deituko du eta, ondoren, badaezpadako neurri horietariko ezein inork eskatu ezean, askatasuna ezarriko du.

6. Agerraldia 72 orduko epean ezin bada burutu eta aurrez esandako balizkoak eta helburuak emanaz gero, Epaileak inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna erabakiko du, 72 orduko epean espetxeko agerraldia berriro deituz.

7. Seigarren paragrafoan honako balizkoak jasotzen dira: atxilotua auziaz arduratuta ez dagoen Epailearen esku ipintzen denean eta 72 orduko epean dagokionaren esku jarri ezin denean. Kasu hauetan honako konponbidea aurkitu du legeriak: agerraldian alderdiak deitzeko eta hartu beharreko badaezpadako neurriaz edo bertan behera uzteaz erabakitzeke betebeharra, atxilotua jasotzen duen Epailearen esku uzten du, aurretiaz aipaturiko balizkoak ematen ez direla uste izanez gero. Epaile horrek auziaz arduraturiko Epailearen esku ipiniko du, azken honek ahal bezain laster entzun egingo du –edonola ere atxilotua jasotzen duenetik gehienez 72 orduko epean-, bere abokatuaz lagunduta, eta egoki deritzon epaia emango du.

1.1.5.- 506. artikulua: espetxeratzeko autoa

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
	<p>1. Inputatuaren egoera pertsonalari buruz emandako ebazpenak auto judizialaren tankerakoak izango dira. Behin-behineko espetxealdia edo bere luzapena erabakitzen duen autoak neurria beharrezkotzat zein egokitatz hartzeko arrazoiak azalduko ditu, betiere horrelako erabakia hartzea justifikatzen duten helburuen arabera.</p> <p>2. Auzia isilpekotzat hartuz gero, espetxeratzeko aginduan horren xehetasunak azalduko dira, jakinarazteko kopian aipatu behar direlarik; horrela, sekretuaren helburua gorde ahal izango da. Ez da inolaz ere, jakinarazpenean gertaturikoaren azalpen xumea hala nola 503. artikuluan aurreikusitako helburuen artean zein den lortu nahi dena aipatu gabe utziko.</p> <p>3. Inputatuaren egoera pertsonalari buruzko autoen berri emango zaie zuzenki ofendituak zein kaltetuak izan direnei, ebazpenaren ondorioz beren segurtasunean eragina izan dezaketenean.</p> <p style="text-align: center;"><u>506. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Logikoa denez, inputatuaren egoera pertsonalean eragina duten erabaki guztiak autoaren era hartuko dute, eta inoiz ez probidentziarena. Halaber, aparteko pieza batean izapidetuko dira.

2. CEren 120. artikulua epaietarako eta, jakina denez, autoetarako ere eskaturikoaren arabera, auto hori arrazoitua izango da, batik bat, oinarritzko eskubideak mugatzen dituztenei begira.

3. Eginbideen isilpekotasuna egotekotan, inputatuak ezagutuz gero isilpekotasunaren helburua arriskuan jarri dezaketen alderdiak ez dira aipatuko autoan. Hala ere, egotzitako egitatearen eta badaezpadako neurriarekin erdietsi nahi diren helburuen azalpen laburra emango da. Isilpekotasuna kentzean, auto osoa jakinaraziko da, eta errekurritzeko aukera egongo da.

4. Delituak kaltetutako edo ofenditutako biktimen eskubideak babesteko, hala nola beren segurtasunerako, inputatuaren egoera pertsonalean eragina eduki dezaketen ebazpen guztien berri emango zaie.

1.1.6.-507. artikulua: errekurtsioak

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p style="text-align: center;">504. artikulua</p> <p>Behin-behineko espetxealdia hala nola beren luzapena edo behin-behineko askatasuna ezarri dezaketen autoen aurka, erreformako eta apelazioko errekurtsioak egikaritu daitezke.</p> <p style="text-align: center;">504 bis artikulua 2 azken paragrafoa</p> <p>Behin-behineko askatasunaren bidezko askatasunari buruz emandako ebazpenen kontra Audentzi Probintzialaren aurrean apelazioko helegitea jarri daiteke.</p> <p style="text-align: center;">518. artikulua</p> <p>Espetxeratzea edo espetxetik irtetea ebatzi duten autoen kontra itzultzeko efektuan soilik jarri daiteke helegitea.</p>	<p>1. Behin-behineko espetxealdia ebatzi, luzatu edo ukatzen duten autoen aurka hala nola inputatuaren askatasuna erabakitzen dutenen kontra dei egiteko helegitea jarri daiteke 766. artikulua zehazturiko eran soilik. Espetxeratze autoaren kontra errekurtsioa gehienez 30 eguneko epean ebatzi behar izango da.</p> <p>2. Aurreko artikulua 2. atalean ezarritakoaren arabera, inputatuari espetxeratze autoa osorik jakinarazi ezean, honek ere berari horren berri emandakoan auto osoa ebatzi dezake, aurreko atalean esandakoari jarraiki.</p> <p style="text-align: center;"><u>507. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Inputatuaren behin-behineko espetxealdia ebatzi, luzatu ukatzen duten autoen kontra edo bere behin-behineko askatasuna erabakitzen dutenen aurka erreformako helegitea jarri daitezke, ondoren apelaziokoa ipintzeko, edo zuzenean apelazioko errekurtsioa jarri daiteke. Helegite biak Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 766. artikuluan zehazturikoaren arabera ebatzi behar dira, baina gehienez 30 eguneko epean ebatzi behar dira. Apelazioko helegitea berehalakoan onartuko da.

2. Eginbideen isilpekotasuna ebatzi denean eta autoa osorik ez bada jakinarazi, inputatuak auto osoaren kontrako errekurtsioa jarri dezake behin isilpekotasuna kenduta, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 766. artikuluan esandakoaren arabera.

508. artikulua: etxean edo beste zentro batean atxilotzea

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p><i>505. artikulua</i>ren bigarren paragrafoa</p> <p>Epaileek murriztutako espetxealdia erabaki dezakete inputatua gaixorik dagoelako espetxera bidaltzea bere osasunerako kaltegarria izan daitekeenean.</p>	<p>1. Epaileak inputatuaren behin-behineko espetxealdia etxean egitea erabaki dezake, horretarako behar diren zaintzako neurriak harturik, gaixorik egoteagatik espetxera bidaltzeak osasunerako oso kalte larria eragin dezakeenean. Epaileak edo epaitegiak inputatuari bere etxetik irteteko baimena eman ahal izango dio bere gaixotasuna artatzeko beharrezkoa den denbora-tarterako, betiere dagokion zaintzapean.</p> <p>2. Inputatua drogamenpekotasunari uzteko tratamendua jasotzen aurkituz gero, eta espetxeratzeak tratamendu horren emaitza zapuztu dezakeenean, behin-behineko espetxeratzeko neurria ordeztzeko aukera dago, inputatua zentro ofizial batean edo horretarako legez onarturiko erakunde baten egoitzan sartuz, tratamenduari luzapena emateko asmoz, betiere prozedura eragin duten egitateak bere hasiera baino lehenagokoak direnean. Kasu honetan, inputatuak ezin izango du zentrotik atera neurria erabaki lezakeen epailearen edo epaitegiaren baimenik gabe. <i>(15/2003ko Lege Organikoaren erredakzioa)</i></p> <p style="text-align: center;"><u>508. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Inputatua behin-behineko etxean atxilotzea arautu da behin-behineko espetxealdia ordeztzeko neurri gisa, gaixorik egoteagatik espetxean sartzeak osasunerako arrisku larria eragin dezakeenean.
2. 15/2003 LOren arabera bigarren paragrafoa gehitu da, drogamenpekotasunean aurkitzen direnen desintoxikatzeko edo droga erabiltzeari uzteko tratamenduari buruzkoa izanik, horretarako baimenduta dauden zentroetan egiteko.

1.1.8.-509. eta 510. artikulua: atxilotuen eta presoekin inkomunikazioa

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p><i>506. artikulua</i></p> <p>Atxilotuen eta presoekin inkomunikazioak behar den denbora-tarte zehatza iraun ahal izango du, prozedura eragin duen delituari buruzko bilaketetan egindako zitak betetze aldera. Oro har ez du bost egun baino gehiagotan luzatu behar.</p>	<p>1. Instrukzioko epaileak edo Epaitegiak salbuespen gisa erabaki dezake komunikaziorik gabeko atxiloketa edo espetxeratzea, honako egoerak ekiditeko: horrela ikerturiko egitatei lotuta dauden pertsonak justiziaren</p>

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p style="text-align: center;"><i>508. artikulua</i></p> <p>Auziaren ardura duen epaileak edo epaitegiak bere erantzukizunpean presoak komunikaziorik gabe uztea agindu ahal izango du, komunikazioan jarri ondoren izan arren, arrazoa nahikoa izanez gero. Hala ere, bigarren inkomunikazioak ez du hiru eguneko epea gaindituko, aurreko artikuluan ezarritakoaren salbuespenarekin.</p> <p>Prozesatutako pertsonari jakinaraziko zaio inkomunikazio berria ebazten den auto arrazoituaren xedapena.</p>	<p>ekintzatik kanpo geratzea; biktimen ondasun juridikoen kontra egitea; delituak egiteari lotutako probak ezkutatzea, aldaraztea edo suntsitzea; edo delitu berriak egitea.</p> <p>2. Aurreko atalean aipaturiko arriskuak ekiditeari begira egindako jarduerak lehenbailehen burutu daitezten behar den denbora-tarte zehatzaz luzatu ahal izango da komunikaziorik eza. Edonola ere, ez da bost egunez baino gehiagoz luzatuko. 384 bis artikulua aipaturiko delituetariko batengatik edo bi pertsonak edo gehiagok adosturik edo modu antolatuan egindako beste delituengatik espetxeratzea erabakitzen denean, komunikaziorik eza gehienez bost eguneko beste epe batez luzatu ahal izango da. Hala ere, kasu hauetan, auziaz arduraturiko epaileak edo epaitegiak presoak berriro komunikaziorik gabe uztea erabaki dezake, komunikazioan jarri ondoren izan arren. Horretarako, ikerketaren edo auziaren ondorengo bilakaeran arrazoi nahikoak eman behar dira. Bigarren inkomunikazioa ez da hiru egunez baino gehiagoz luzatuko.</p> <p>3. Inkomunikazioa edo, hala badagokio, luzapena erabakiko duen autoak neurria hartzeko arrazoiak azaldu beharko ditu. <i>(15/1997 Lege Organikoaren erredakzioa)</i></p> <p style="text-align: center;"><u>509. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
---	--

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p style="text-align: center;"><i>506. artikulua bigarren paragrafoa</i></p> <p>Legeak inkomunikatuari bere esku-hartzea baimentzen duen neurrian, adituaren eginbideetan egon ahal izango du, betiere behar diren badaezpadako neurriak harturik, inkomunikazioaren helburua ez kaltetzeko.</p> <p style="text-align: center;"><i>507. artikulua</i></p> <p>Zitak Penintsularen lurraldetik kanpo edo urrunetik egin behar izanez gero, inkomunikazioa zimarkua edo konfabulazioa ekiditeko behar den badaezpadako denboran luzatu ahal izango da.</p> <p style="text-align: center;"><i>509. artikulua</i></p> <p>Komunikaziorik gabeko presoari berak emandako liburuak eta gauzak edukitzeko baimena emango zaio, Epaile Instrukziogileak egoki deritzonaren arabera.</p> <p style="text-align: center;"><i>510. artikulua</i></p> <p>Epaile instrukziogileak inkomunikatuari idazteko baimena eman ahal izango dio, baimen horri egoki iritiz gero. Hala ere, baimena eskainitako probidentzian, dagozkion neurriak hartuko ditu inkomunikazioaren ondoreak zapuztea ekiditeko.</p> <p style="text-align: center;"><i>511. artikulua</i></p> <p>Komunikaziorik gabeko presoak ezin izango du inongo gutunik edo paperik jaso, dagokion bideak erabiliz eta Epaile instrukziogilearen baimenaz ez bada. Honek bere edukia berri edukiko du, jarraipena emateko edo kentzeko.</p>	<p>1. Inkomunikatuak badaezpadako neurriak harturik eginbideetan egon ahal izango du, legeak bere esku-hartzea baimentzen duen neurrian, betiere inkomunikazioaren helburua kaltetu gabe.</p> <p>2. Presoari berak emandako gauzak edukitzeko baimena eman ahal izango zaio, inkomunikazioaren helburuak zapuzten ez diren bitartean.</p> <p>3. Presoak ezin izango du inongo komunikaziorik egin edo jaso. Hala ere, epaileak edo epaitegiak komunikaziorik gabeko espetxeratzearen helburua zapuzten ez duten komunikazioak baimendu ahal izango ditu eta, hala badagokio, beharrezko neurriak hartuko ditu.</p> <p>4. Hala eskatuz gero, komunikaziorik gabeko presoak auzitegiko beste mediku batek artatua izateko eskubidea dauka, egitatez arduratutako epaileak edo epaitegiak esleiturikoa izango delarik. <i>(Honako paragrafoa 15/2003 Lege Organikoaren erredakzioaren arabera da)</i></p> <p style="text-align: center;"><u>510. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. 15/2003 Lege Organikoak aldatu ditu Prozedura Kriminalari buruzko Legearen bi artikuluko -509 eta 510-. Honako alorrak arautzen dituzte: komunikaziorik gabeko behin-behineko espetxealdia, hala nola bere betekizunak, epeak eta helburuak ere.

2. Arauketa berriak aurrekoak baino gaur eguneko ordenamendu juridikoarekin zer ikusi handiagoa dauka, argi eta garbi zaharkiturik baitzegoen.

3. Komunikaziorik gabeko behin-behineko espetxealdiaren epea eginbideak premiaz gauzatzeko beharrezkoa den denbora-tarte zehatza baino gehiago ezin da luzatu, eginbide horiek aipaturiko helburu generikoak ekidin nahi dutenean, behin-behineko espetxealdiaren xedea horixe izanik, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 509.1 artikuluko ere berriro aipatzen duenez.

4. Edonola ere, ezin du bost urte baino gehiago iraun, 384 bis artikuluko aipaturiko delituetariko baten aurrean gaudenean izan ezik, edo antolaturiko delinkuentzia denean, atxilotuen edo presoaren komunikazioak ikerketaren bilakaera egokian eragina izan baitezake. Horrelakoetan, inkomunikazioa bost urteko beste epe batez luzatu daiteke.

1.1.9.- 511. artikulua: espetxeratzeko eta aske uzteko autoak egikaritzea

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p style="text-align: center;">505. artikulua</p> <p>Espetxeratzeko autoa gauzatzeko bi agindu sortuko dira: bata betearazpenaz arduratutako Auzitegiko algoazilari edo Epaitegiko atezainari edo Polizia Judizialeko funtzionarioari eta bestea preso hartu behar duen espetxeko Zuzendariari. (...) Aginduan honako datuak hitzez hitz jarriko dira: auzipetua espetxeratzeko autoa eta bere izen-deiturak, jatorria, adina, egoera eta helbidea (jasota geratuz gero); prozedura eragin duen delitua; ofizioz edo beste batek eskaturik diharduen eta espetxeratzea komunikazioaz edo horrelakorik gabe egingo den azaltzea.</p> <p>Espetxeetako Zuzendariak ez dute inor preso gisa jasoko espetxeratzeko agindua aurkeztua izan gabe.</p>	<p>1. Espetxeratzeko agindua gauzatzeko bi agindu egingo dira: bata egikaritu behar duen Polizia Judiziala edo agente judizialari, eta bestea, preso jaso behar duen espetxeko zuzendariari. Aginduan honako datu hauek jarriko dira: inputatuaren datu pertsonalak, prozedura eragiten duen delitua eta espetxeratze komunikazioaz edo horrelakorik gabe egin behar den.</p> <p>2. Espetxeetako zuzendariak ez dute preso gisa inor hartuko espetxeratzeko agindu jaso ezean.</p> <p>3. Behin presoaren askatasuna erabakitzen duen autoa xedaturik, berehalakoan espetxeko zuzendariari agindua luzatuko zaio.</p> <p style="text-align: center;"><u>511. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Artikulu honetan behin-behineko espetxealdia egiteko modua arautzen da, hain zuzen ere, bi aginduren bitartez: bata presoa espetxeratu behar duen agente judizialari edo Polizia Judizialaren kideari eta bestea zentro horren Zuzendariari zuzendurikoa, preso gisa hartu dezala jakinarazteko. Horrela, ez du inol jasoko bera espetxeratzeko aginduan honako informazioa eduki ezean: inputatuaren datuak, delitua eta espetxeratzea komunikazioarekin edo horrelakorik gabe egiten den zehaztea. Azken betekizun hori ez bada jasota geratzen, presoa espetxeratze komunikatuan hartuko dute, eta Epaitegiaren horren berri emango zaio alderdi hori argitu dezan. Edonola ere, ez da preso bat ere hartuko bere identitateari buruzko zalantzarik egonez gero, edo bere datuak argiak ez badira edo urratuta zein ezabatuta badaude.

2. Behin aske uzteko autoa xedaturik, preso dagoen espetxeko Zuzendariari agindua berehalakoan helaraziko zaio, berehalakoan askatzea eskatuz.

1.1.10.- 529. artikulua: behin-behineko askatasuna

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>Espetxealdi txikiko edo murrizteko delituaren bidez auzipetua izanez gero eta, bestalde, hori 492. artikuluaren 3. zenbakiaren barruan jasota egon ezean eta Lege honen 503. eta 504. artikuluetan xedaturikoa ezarriz bere behin-behineko espetxealdia ez bada erabaki, auziaz arduratutako Epaileak edo Epaitegiak erabakiko du auzipetuak fidantzarik eman behar duen ala ez behin-behineko askatasunari eusteko.</p> <p>Auto berean Epaileak fidantza agintzen badu, eman beharreko izaera eta kopurua zehaztuko ditu.</p> <p>Honako autoa Ministerio Fiskalari jakinaraziko zaio, eta kereila-jartzaile partikularrari nahiz auzipetuari jakinaraziko zaie, eta ondore bakarrean apelatzeko modukoa izango da.</p>	<p>Inputatua espetxera bidaltzea erabaki ez denean, inputatuak fidantzarik eman behar duen ala ez aginduko du epaileak edo epaitegiak, 505. artikuluaren arabera.</p> <p>Auto berean, epaileak edo epaitegiak fidantza aginduz gero, bere izaera eta kopurua zehaztuko ditu.</p> <p>Inputatuari, Ministerio Fiskalari eta bertaraturiko gainerako alderdiei autoa jakinaraziko zaie. Halaber, errekurritu ahal izango da 507. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.</p> <p style="text-align: center;"><u>529. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Inputatuaren fidantzapeko behin-behineko askatasuna erabakitzeko alderdiak agerraldia deitu beharra dago, Prozedura kriminalari buruzko Legearen 505. artikuluan zehazturikoaren arabera.

2. Fidantza aginduko duen autoan bere kopurua eta izaera zehaztuko da. Logikoa denez, alderdiek alegazioak azaltzen dituztenean honako gaiari buruz ere egin ahal izango ditu.

3. Fidantzapeko behin-behineko askatasuna erabakitzen duen autoa alderdi guztiei eta aipatu neurriak kaltetutakoei ere jakinaraziko zaie, prozesuan alderdia osatu ez arren, hau da, biktimei ere horren berri emango zaie, beren segurtasunerako behar diren neurriak hartu ahal daitezen, Prozedura kriminalari buruzko Legearen 506.3 artikulua araberaz.

4. Auto honen aurrean, erreformako errekurtsoa eta, horren ordez, apelatzekoa edo, zuzenean, apelatzekoa jarri ahal izango da. Prozedura kriminalari buruzko Legearen 766. artikuluan ezarritakorekin bat etorritik eta gehienez 30 eguneko epean izapidetu beharko da.

1.1.11.- 530. artikulua: behin-behineko askatasunean dagoenaren betekizunak

Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua	Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa
Behin-behineko askatasunean egon behar duen auzipetuak, fidantzapean edo horrelakorik gabe, dagokion autoan adierazten zaizkion egunotan agertzeko obligazioa osatuko du, <i>apud acta</i> . Horrela egingo du auziaz arduraturiko epailearen edo epaitegiaren aurrean agertzeko deitzen zaion bakoitzean.	Fidantzarik gabe edo fidantzapean behin-behineko askatasunean egon behar duen inputatuak dagokion autoan adierazten zaizkion egunotan agertzeko obligazioa osatuko du, <i>apud acta</i> . Horrela egingo du auziaz arduraturiko epailearen edo epaitegiaren aurrean agertzeko deitzen zaion bakoitzean. Honako obligazioa beteko dela bermatzeko, epaileak edo epaitegiak era arrazoituan pasaporte atxikitzea erabaki ahal izango du.
	<u>530. ARTIKULUAREN AMAIERA</u>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Fidantzapean edo fidantzarik gabe behin-behineko askatasunean aurkitzen denaren obligazioa jasotzen da, *apud acta*, aurreko legerian araututa zegoen bezala.

2. Berrikuntza gisa pasaporte atxikitzea sartu da, obligazio hori beteko dela bermatze aldera.

1.1.12.- 539. artikulua (3. eta 4. paragrafoak): inputatuaren baldintzak larriagotzea

Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua	Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa
Hala ere, Epailearen edo Epaitegiaren arabera ihes egiteko arriskurik egonez gero, badaezpadako neurriaren erreformako autoa agindu beharko da, baita espetxeratzekoa ere, inputatua aske aurkituz gero, baina adierazitako agerraldia hirurogeita hamabi orduko epean deitu beharko da.	Espetxeratzea edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna erabakitzeko edo dagoeneko erabakita dagoen behin-behineko askatasunaren baldintzak larriagotzeko, fidantzapeko behin-behineko askatasunarekin ordeztuz, Ministerio Fiskalaren edo alderdi akusatzailearen baten eskaria egon beharko da, 505. artikulua aipaturiko
Epailea edo Epaitegiaren ustez, neurria jasango duena aske	

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>utzi edo behin-behineko askatasuna bere alde aldatu behar denean, edonoiz ofizioz horrelako erabakia hartu ahal izango du, alderdi baten eskariari arreta eman behar izan gabe.</p>	<p>aurretiko agerraldiaren bidez erabakiko delarik. Hala ere, epailearen edo epaitegiaren arabera 503. artikuluaen aurrebaldintzak emanaz gero, neurriaren erreformako autoa agindu beharko da, baita espetxeratzea ere inputatua aske baldin badago; baina, era berean, hurrengo 72 orduen epearen baitan adierazitako agerraldia deitu beharko da.</p> <p style="text-align: center;"><u>539.3. eta 4. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	---

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Behin-behineko askatasunean dagoen pertsona baten baldintzak larriagotzeko Ministerio Fiskalaren edo alderdi akusatzaileetarik baten eskaria jaso beharko da.

2. Hala ere, Epaileak edo Epaitegiak Prozedura kriminalari buruzko Legeak aipaturiko aurrebaldintzetarik bat ematen direla uste badute, baldintzak eta behin behineko askatasuna ere larriagotuko dituzte. Halaber, 72 orduko epean Prozedura kriminalari buruzko Legearen 505. artikulua aipaturiko agerraldia deituko du.

1.1.13.- 544. bis artikulua (azken paragrafoa): badaezpadako neurria ez betetzea

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>Epaileak edo Epaitegiak erabakitako neurria auzipetuak ez betetzeak bere askatasunaren mugatze handiagoa dakarten badaezpadako neurri berriak eragin ditzake, honako datuak kontuan harturik: ez betetzearen eragina, horren arrazoiak, larritasuna eta inguruabarrak. Neurri hori ez betetzeak ekarri ditzakeen erantzukizunen kaltetan gabe.</p>	<p>Epaileak edo epaitegiak erabakitako neurria auzipetuak ez badu betetzen, horrek 505. artikuluan arauturiko agerraldia deituko du, 503. artikuluko terminoen arabera behin-behineko espetxealdia erabakitze aldera. Halaber, 544 ter artikuluan aurreikusitako babesteko agindua edo bere askatasuna mugatzen duen badaezpadako bestelako neurria hartzea erabaki dezake, horretarako honako alderdiak kontuan hartuko direlarik: ez betetzearen ondorioak, horren arrazoiak, larritasuna eta inguruabarrak, ez betetzeak ekarri litzakeen erantzukizunen kaltetan gabe. (15/2003 Lege Organikoaren arabera idatzia).</p> <p style="text-align: center;"><u>544 BIS ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1. Biktimarengandik urruntzeko edo berarekin komunikaziorik gabe uzteko nahiz leku jakinetara ez joateko neurriak betetzen ez direnean, Epaileak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 505. Artikuluaren agerraldia deituko du, inputatuaren behin-behineko espetxealdia edo bere egoera larriagotzea edo biktima babesteko agindua erabakitze aldera, horrek arlo penalean, zibilean eta sozialean dakartzan ondorioekin.

2. 15/2003 Lege Organikoak artikulua honen bigarren erreforma bat egin du, biktima babesteari buruzko alderdiak nabarmentzeko asmoz, etxean egindako balizko tratu txarretan eta, batik bat, emakumearen aurkako indarkerian. Horrela, Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544. artikuluan aurreikusitako badaezpadako edozein neurri bete ezean, Epaileak edo Epaitegiak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 505. artikulua araberako agerraldia deituko du, inputatua atxilotzea aginduz behar izanez gero eta, era berean, alderdiak zitaturiko dituzten horiek bere behin-behineko askatasuna larriagotzea edo, aukeran, behin-behineko espetxealdia eskatu dezaketelarik. Bere aldetik, Epaileak egoki deritzona erabaki dezake, batik bat, biktimaren bestelako ondasun juridikoei begira –batez ere bizitza- egon daitekeen arriskuaz argudiatuz.

1.2.- ETXEKO INDARKERIAREN ALORREKO DELITUAGATIKO EDO FALTAGATIKO

EPAIKETA ARINAK

- Eragindako manuak:
 - **Prozedura kriminalari buruzko Legearen 795, 796, 797, 798, 801, 962, 965 eta 966 artikulua**
- Honako Legeetan egindako aldaketak:
 - Zigor Kodea aldatzeari buruzko **azaroaren 25eko 2003/15 Lege Organikoa** (BOE: 2003ko azaroak 26) argitaratu ondorengo egunean indarrean sartu zelarik.
- **Isabel Tena Francok azterturiko artikulua**

1.2.1.- 795. artikulua: ezarpen eremua

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
1. “Gainerako prozesu judizialeko ezarritakoaren kaltetan gabe, Titulu honetan arauturiko prozedura delituen instrukzioa eta auziperatzeari ezarriko zaie, horiek gehienez bost urteko epe batez askatasuna kentzen duten zigorrak jasotzen dituztenean. Halaber, bestelako zigorrekin ere halaxe egingo da, bakarrak, bateratuak edo aukerakoak izanik ere, beren iraupena hamar urtetik gorakoa ez denean, beren	1. “Gainerako prozedura berezietarako ezarritakoaren kaltetan gabe, Titulu honetan araututako prozedura gehienez bost urteko epe batez askatasuna kentzearekin zigortutako delituen instrukzioan eta auziperatzean erabiliko da. Halaber, bestelako zigorrekin ere halaxe egingo da, bakarrak, bateratuak edo aukerakoak izanik ere, beren iraupena hamar urtetik gorakoa ez denean, beren kopurua edozein delarik,

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

kopurua edozein delarik, betiere prozesu penala polizia-atestatu baten arabera egiten bada eta Polizia Judizialak pertsona bat atxilotu badu eta Guardiako Epaitegiaren esku jarri baldin badu, edo atxilotua izan gabe, Guardiako Epaitegian agertu dadin zitatu badu, polizia-atestatuan salatua izandakoaren izaera edukitzeagatik eta, gainera, hurrengo zergatietariko bat ematen bada:

1º Delitua ageri-agerikoa izatea. Ondore horietarako, horrelako delitua delinkuenteak egintzan bertan diharduela antzematen denean emango da, edo delitu hori egin berria denean. Horretarako, delituan diharduen delinkuenteaz gain, burutu ondoren atxilotua edo jazarria dena ere hartuko da egintzan bertan antzemandakotzat, delinkuenteak jazarleen berehalako irismenetik kanpo geratzen ez den bitartean jazarpen horrek baldin badirau edo ez bada eteten. *Ageri-ageriko* delinkuentetzat ere hartuko da ondoreak, tresnak edo aztarnak dituen delitua burutu ondoren berehalakoan antzemandako hura, betiere froga horietatik egintzan parte hartu duela ondorioztatzeko aukera egonez gero.

2º Honako delituetariko bat izatea:

- a) *Ebasketa.*
- b) *Lapurketa.*
- c) *Ibilgailuak erabiltzeko ebasketa eta lapurketa.*
- d) *Trafikoaren segurtasunaren aurkako delituak.*

3º Zigortzeko moduko egitatea izatea, bere instrukzioa erraza izango dela uste denean.

2. Titulu honetan arauturiko prozedura ez da delituei buruzko ikerketan eta epaiketan ezarriko, horiek aurreko atalean jaso ez diren gainerako delituei loturik badaude.

3. Honako prozedura ez da erabiliko eginbideen isilpekotasuna erabakitzea bidezkoa den kasuetan, 302. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Honako Tituluan beren beregi aurreikusi ez denaren ordezkari Liburu honen II Tituluko arauak ezarriko dira, prozedura laburtuari buruzkoak.”

betiere prozesu penala polizia-atestatu baten arabera egiten bada eta Polizia Judizialak pertsona bat atxilotu badu eta Guardiako Epaitegiaren esku jarri baldin badu, edo atxilotua izan gabe, Guardiako Epaitegian agertu dadin zitatu badu, polizia-atestatuan salatua izandakoaren izaera edukitzeagatik eta, gainera, hurrengo zergatietariko bat ematen bada:

1º Delitua ageri-agerikoa izatea. Ondore horietarako, horrelako delitua delinkuenteak egintzan bertan diharduela antzematen denean emango da, edo delitu hori egin berria denean. Horretarako, delituan diharduen delinkuenteaz gain, burutu ondoren atxilotua edo jazarria dena ere hartuko da egintzan bertan antzemandakotzat, delinkuenteak jazarleen berehalako irismenetik kanpo geratzen ez den bitartean jazarpen horrek baldin badirau edo ez bada eteten. *Ageri-ageriko* delinkuentetzat ere hartuko da ondoreak, tresnak edo aztarnak dituen delitua burutu ondoren berehalakoan antzemandako hura, betiere froga horietatik egintzan parte hartu duela ondorioztatzeko aukera egonez gero.

2º Honako delituetariko bat izatea:

- a) **Lesioak, derrigortzeak, mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa zein psikikoa diren delituak, Zigor Kodearen 173.2 artikulua aipaturiko pertsonen kontra burutu direnean.**
- b) **Ebasketa.**
- c) **Lapurketa.**
- d) **Ibilgailuak erabiltzeko ebasketa eta lapurreta.**
- e) **Trafikoaren segurtasunaren aurkako delituak.**
- f) **Zigor Kodearen 263. artikuluan aipaturiko kalteengatiko delituak.**
- g) **Osasun publikoaren kontrako delituak, Zigor Kodearen 368. artikulua aurreikusitakoak.**
- h) Jabego intelektual eta industrialari buruzko ageri-ageriko delituak, 270, 273, 274 eta 275 artikuluetan aurreikusitakoak.

3º Zigortzeko moduko egitatea izatea, bere instrukzioa erraza izango dela uste denean.

2. Titulu honetan arauturiko prozedura ez da delituei buruzko ikerketan eta epaiketan ezarriko, horiek aurreko atalean jaso ez diren gainerako delituei loturik badaude.

3. Honako prozedura ez da erabiliko eginbideen isilpekotasuna erabakitzea bidezkoa den kasuetan, 302. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Honako Tituluan beren beregi aurreikusi ez denaren ordezkari Liburu honen II Tituluko arauak ezarriko dira, prozedura laburtuari buruzkoak.”

795. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Etxeko Indarkeriaren alorrean, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak (jorratzen ari garen manuari dagokionean 2003-11-27tik indarrean) 795.1.2 artikulua edukia egokitu du Zigor Kodearen 153 eta 173 artikuluen moldaketaren arabera, Herritarren Segurtasuna, Etxeko Indarkeria eta atzerritarren gizarteratzeari buruzko Neurri zehatzen 11/2003 Lege Organikoak egindakoa. Horregatik, artikuluaurreko aipamena (“Zigor Kodearen 153. Artikuluak aipaturikoaren arabera, pertsonen kontra egindako lesioak, derrigortzeak, mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa edo psikikoa”) honako adierazpenarekin ordeztu da: “Zigor Kodearen 173.2 artikulua aipaturikoaren arabera, pertsonen kontra egindako lesioak, derrigortzeak, mehatxuak edo ohiko indarkeria fisikoa edo psikikoa”.

2º) Manu horrek epaiketa arinen alorrean honako delituak barne hartzen dirau: lesioak, derrigortzeak, mehatxuak eta ohiko indarkeria fisikoa edo psikikoa, betiere etxeko indarkeriaren arloan egindakoak. Horretan egindako eremu subjektiboa zabaldu denez gero, honako berezitasuna sortu da: subjektu aktiboak ezkontidearengan edo antzeko harreman afektiboaren bidez berari lotuta dagoen edo egon den pertsonarengan egindako indarkeriaz gain –elkarbizitzarik gabekoa izanik ere-, epaiketa arinaren bitartez auzipetuko dira orain norberaren, ezkontidearen edo bizikidearen senidearengan egindakoa ere (ondorengoak, arbasoak edo neba-arrebak naturaren arabera, adopzioz edo ezkontza-ahaidetasunez). Arlo horretan honako hauek ere sartuko dira: adinez txikikoak edo ezgaituak, betiere berarekin bizi badira edo ezkontidearen zein bizikidearen ahala, tutoretza, kuradoretza, harrera edo izatezko zaintzari loturikoak, baita kaltetuak izateko arriskuagatik sendiaren elkarbizitzaren muinean hala nola zentro publiko zein pribatuen zaintzapean aurkitzen diren pertsonak ere.

1.2.2.- 796. artikulua: Polizia Judizialaren jardunak (Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideak zitatzea)

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p>1. “II Liburuaren III Tituluan ezarritakoa eta Liburu honen II Tituluaren II atalburuaren aurreikuspenak gorabehera, Polizia Judizialak hurrengo eginbideak egin beharko ditu ezinbesteko denbora-tartean eta, askoz jota, atxiloaldian:</p> <p>1º 770. artikulua 1 zenbakiak aipaturiko laguntzak jasotze aldera, ofenditua artatuko duen medikuari edo osasun-langileari emandako asistentziari buruzko txostenaren kopia</p>	<p>1. “II Liburuaren III Tituluan ezarritakoa eta Liburu honen II Tituluaren II atalburuaren aurreikuspenak gorabehera, Polizia Judizialak hurrengo eginbideak egin beharko ditu ezinbesteko denbora-tartean eta, askoz jota, atxiloaldian:</p> <p>1º 770. artikulua 1 zenbakiak aipaturiko laguntzak jasotze aldera, ofenditua artatuko duen medikuari edo osasun-</p>

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

jasoko du, polizia-atestatuari atxikitzeko. Halaber, auzitegiko medikuaren presentzia eskatuko du artatua izan beharreko pertsonak Guardiako Epaiketara bidaiatu ezin duenean, 799. artikuluan aurreikusitako epearen barruan.

3º Egintza egotzi zaion pertsonari jakinaraziko zaio Guardiako Epaitegiaren aurrean abokatuaz lagunduta agertzeko duen eskubidea, bera atxilotzeari ekin ez arren. Interesdunak abokatuaz lagunduta agertzeko asmoa beren beregi adierazi ezean, Polizia Judizialak Abokatuen Elkargoarengandik ofiziozko abokatua izendatzea eskatuko du.

3º Polizia-atestatuan salatutako pertsona zitatuko du Guardiako Epaitegiaren aurrean adierazitako egunean eta orduan agertu dadin, bera atxilotzeari ekin ez zaionean. Guardiako Epaitegiaren aurrean poliziaren zitazioan ez agertzearen ondorioen berri emango zaio zitatutakoari.

4º Lekukoak, ofendituak eta kalteturikoak ere deituko ditu Guardiako Epaitegian adierazitako egunean eta orduan agertu daitezen. Lekukoei Guardiako Epaitegiko polizia-zitazioan ez agertzearen ondorioen berri emango zaie.

5º Zigor Kodearen 117 artikulua aipaturko erakundeak egun eta ordu berean zitatuko ditu, beren identitatea jasota geratu bada.

6º Hartutako substantziak –aztertu behar direnean- honako tokietara bidaliko dira: Toxikologiako Institutua, Medikuntza Orokorreko Institutua edo dagokion laborategia. Erakunde horiek berehalakoan egingo dute eskaturiko azterketa eta horren emaitza Guardiako Epaitegira igorriko dute horretarako baliabiderik azkarrena erabiliz eta, edonola ere, aurreko arauetan adierazitako pertsonak zitatuko izan diren eguna eta ordua baino lehen. Epe horretan analisisa bidaltzerik egon ezean, Polizia Judizialak azterketa hori burutu ahal izango du, betiere dagokion kontrol judiziala edukirik.

7º Alkoholemia-kontrolak bide-segurtasunari buruzko legeriak ezarritakoaren arabera izango dira. Hala ere, odol-analisisa edo horren antzekoa egitekotan, hori egiten duten osasun-langileei emaitza Guardiako Epaitegira igortzea eskatuko zaie, horretarako baliabiderik azkarrena erabiliz eta, edonola ere, aurreko arauak aipaturiko zitazioaren hitzordua baino lehen.

8º Tasatu beharreko gairen bat ezin bada bidali, dagokion aditua edo zerbitzua bertara joatea eskatuko da, hori aztertu eta aditu-txostena osatu dezan. Txosten hori ahoz eman daiteke Guardiako Epaitegian.

2. Aurreko atalak aipaturiko zitazioak egiteko, Polizia Judizialak Guardiako Epaitegiarekin batera jarriko du hitzordua. Ondore horietarako, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110. artikuluan ezarritakoa betez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Instrukzioko Epaitegien guardia-zerbitzuak antolatzeko dagozkion Araudiak sortuko ditu, zitazioak egite aldera, Polizia Judizialarekin lankidetzan.

langileari emandako asistentziari buruzko txostenaren kopia jasoko du, polizia-atestatuari atxikitzeko. Halaber, auzitegiko medikuaren presentzia eskatuko du artatua izan beharreko pertsonak Guardiako Epaiketara bidaiatu ezin duenean, 799. artikuluan aurreikusitako epearen barruan.

2º Egintza egotzi zaion pertsonari jakinaraziko zaio Guardiako Epaitegiaren aurrean abokatuaz lagunduta agertzeko duen eskubidea, bera atxilotzeari ekin ez arren. Interesdunak abokatuaz lagunduta agertzeko asmoa beren beregi adierazi ezean, Polizia Judizialak Abokatuen Elkargoarengandik ofiziozko abokatua izendatzea eskatuko du.

3º Polizia-atestatuan salatutako pertsona zitatuko du Guardiako Epaitegiaren aurrean adierazitako egunean eta orduan agertu dadin, bera atxilotzeari ekin ez zaionean. Guardiako Epaitegiaren aurrean poliziaren zitazioan ez agertzearen ondorioen berri emango zaio zitatutakoari.

4º Lekukoak deituko ditu guardiako epaitegian agertu daitezen, adieraziko zaizkien egunean eta orduan, bertako polizia-atestatuan ez agertzeak dakartzan ondorioen berri emanaz. Ez da beharrezkoa atestatuan parte hartu duten Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideak zitatzea, beren aitorpena horretan agertzen denean.”

5º Egun eta ordu berean Zigor Kodearen 117 artikulua aipaturiko erakundeak zitatuko ditu, beren identitatea jasota agertuz gero.

6º Hartutako substantziak –aztertu behar direnean- honako tokietara bidaliko dira: Toxikologiako Institutua, Medikuntza Orokorreko Institutua edo dagokion laborategia. Erakunde horiek berehalakoan egingo dute eskaturiko azterketa eta horren emaitza Guardiako Epaitegira igorriko dute horretarako baliabiderik azkarrena erabiliz eta, edonola ere, adierazitako pertsonak zitatuko izan diren eguna eta ordua baino lehen. Epe horretan ezin bada azterketa igorri, Polizia Judizialak azterketa hori burutu ahal izango du, horri dagokion kontrol judizialaren kaltetan gabe.

7º Alkoholemia-kontrolak bide-segurtasunari buruzko legerian zehazturikoaren arabera egingo dira. Hala ere, odol-analisisa edo antzekoa egiten denean, osasun-langileei horren emaitza Epaitegira igortzea eskatuko zaie, horretarako baliabiderik azkarrena erabiliz eta, edonola ere, aurreko arauak aipaturiko zitazioaren eguna eta ordua baino lehen.

8º Tasatua izan behar den objekturen bat Guardiako Epaitegira igorri ezin bada, dagokion aditua edo zerbitzua bertaratzeko eskatuko da hori aztertze nahiz adituaren txostena osatzeko. Txosten hori ahoz aurkeztu daiteke Guardiako Epaitegian.

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>3. Premia dela eta, zitazioak edozein hedabide erabilita egin ahal izango dira, baita ahoz ere, betiere dagokion aktan edukiaren berri utzi bada.</p>	<p>2. Aurreko atalak aipaturiko zitazioak egiteko, Polizia Judizialak agerraldiaren eguna eta ordua zehaztuko ditu Guardiako Epaitegiarekin batera. Ondore horietarako, eta Lege Organikoaren 110. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Instrukzioko Epaitegien guardia-zerbitzuak antolatzeke dagozkion Araudiak sortuko ditu, zitazioak egite aldera, Polizia Judizialarekin lankidetzan.</p> <p>3. Premia dela eta, zitazioak edozein hedabide erabilita egin ahal izango dira, baita ahoz ere, betiere dagokion aktan edukiaren berri utzi bada.</p> <p>4. Titulu honetan arauturiko prozedura ezarritz, Polizia Judizialak 795. artikuluko 1 atalean aurreikusitako inguruabarretariko batean txertatu daitekeen egintza burutu izanaren berri edukiz gero, hasitako ikerketari eutsiko dio, betiere horren ustezko erantzulea atxilotu edo aurkitu ezean, berehalakoan identifikatu eta lokalizatu daitekeela uste bada. Horrela, atestatu bakarrean jasoko dira aipatu ikerketak eta , aurreko ataletan aurreikusitakoari eutsiz, guardiako epaitegira bidaliko dira ustezko erantzulea atxilotua edo zitatua den bezain pronto eta, edonola ere, hurrengo bost eguneko epearen baitan. Aipatu kasuotan kausaren instrukzioa atestaturatu jaso duen guardiako epaitegiari egokituko zaio. Atal honetan ezarritakoaz gain, guardiako epaitegiari eta Ministerio Fiskalari ekintza burutu dela eta ikerketek dirautela jakinaraziko zaie, hala jasota geratu dadin”.</p> <p style="text-align: center;"><u>796. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorrotutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 796.1.4 artikuluen edukia aldatu du, Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideei zitatutak ez izateko aukera emateko, betiere atestaturatu esku hartu badute, beren aitortpena bertan agertzen direlarik. Egia esan, praktikak erakutsi digunaren arabera, ikerketaren helburuetarako bere aitortpena alferrikakoa da eta, gainera, Epaileak bere aitortpena premiazko eginbide gisa hartu dezake, Prozedura kriminalari buruzko Legearen 797.1.8 artikuluan ezarritako aurreikuspen legalari erreparaturik.

2º) Jorrotutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak 4 atal berria sartu du Prozedura kriminalari buruzko Legearen 796.1.4 artikuluan, atxilotu

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

eta atzeman gabeko delituen egilea auziperatze azkarra errazte aldera, betiere hori arin identifikatzea eta aurkitzea aurreikusi daitekeenean. Legeak polizia judizialari aukera ematen dio ikerketa guztiak atestatu bakarrean jasota agertu daitezen, behin ustezko erantzulea atxilotua edo zitatua denean igorriko delarik. Edonola ere, atestatua jasotzen duen Guardiako Epaitegiak delitua auziperatzeko eskumena edukiko du. Horrela, erreformak epaiketa azkarraz arduratzeko atestatua jasotzen duen Guardiako Epailearen eskumena zehaztu du, balizko atestatu gehigarriak eta eskudun epaileak direla-eta, erreforma baino lehen jazo zitezkeen zalantzak argituz.

1.2.3.- 797. artikulua: premiazko eginbideak

Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua	Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa
<p>1. <i>Guardiako epaitegiak, dagozkion gauza, tresna eta frogez lagunduriko polizia-atestatua jaso ondoren, premiazko eginbideak egingo ditu, hala badagokio. Egotzi zaizkion gainerako zereginen kaltetan gabe, hala behar direnean, honako eginbideak egingo ditu, egoki deritzon ordenean edo inguruabarrek eskatzen dutenaren arabera, Ministerio Fiskalaren parte-hartze aktiboarekin.</i></p> <p>1º Atxilotuaren edo inputatuaren aurrekari penalak eskatuko ditu biderik azkarrenaren bidez.</p> <p>2º Beharrezkoa izanez gero, egotzitako egitateak kalifikazio juridikorako honako ekintzak burutuko ditu:</p> <p>a) Aurretik jaso izan ezean, Polizia Judizialak eskaturiko aditu-txostenak lortuko ditu.</p> <p>b) Dagokionean eta proportzionatua denean, juezaren aurrean agerturikoak aztertzea eskatuko dio auzitegiko medikuari, dagokion adituaren txostena osatuz.</p> <p>c) Juezaren esku jarritako eta atzemandako ondasunen edo gauzen tasazioa egitea eskatuko dio aditu bati.</p> <p>3º Juezaren esku jarritako atxilotuaren edo, polizia-zitazioan agertu delarik, atestatuaren terminoetan egotzitako pertsonaren aitortpena entzungo du, 775. Artikuluan aurreikusitako moduan. Inputatua ez bada agertzen Guardiako Epaitegiaren aurreko polizia-zitazioan, honek 487. artikuluan aurreikusitakoa ezarri dezake.</p> <p>4º Polizia Judizialaren deiari erantzunez, bertaraturiko lekukoei entzungo die. Guardiako Epaitegiaren aurrean edozein lekuko agertu ezean, honek 420. artikulua aurreikusitakoa ezarri ahal izango du.</p> <p>5º 776. artikulua aurreikusitako informazioak gauzatuko ditu.</p> <p>6º Inputatuarekin taldeko identifikazio-saioa egingo da, hala</p>	<p>“1. Guardiako epaitegiak, dagozkion gauza, tresna eta frogez lagunduriko polizia-atestatua jaso ondoren, premiazko eginbideak egingo ditu, hala badagokio. Egotzi zaizkion gainerako zereginen kaltetan gabe, hala behar direnean, honako eginbideak egingo ditu, egoki deritzon hurrenkeran edo inguruabarrek eskatzen dutenaren arabera, Ministerio Fiskalaren parte-hartze aktiboarekin.</p> <p>1º txilotuaren edo inputatuaren aurrekari penalak eskatuko ditu biderik azkarrenaren bidez.</p> <p>2º Beharrezkoa izanez gero, egotzitako egitateak kalifikazio juridikorako honako ekintzak burutuko ditu:</p> <p>a) Aurretik jaso izan ezean, Polizia Judizialak eskaturiko aditu-txostenak lortuko ditu.</p> <p>b) Dagokionean eta proportzionatua denean, juezaren aurrean agerturikoak aztertzea eskatuko dio auzitegiko medikuari, dagokion adituaren txostena osatuz.</p> <p>c) Juezaren esku jarritako eta atzemandako ondasunen edo gauzen tasazioa egitea eskatuko dio aditu bati.</p> <p>3º Juezaren esku jarritako atxilotuaren edo, polizia-zitazioan agertu delarik, atestatuaren terminoetan egotzitako pertsonaren aitortpena entzungo du, 775. Artikuluan aurreikusitako moduan. Inputatua ez bada agertzen Guardiako Epaitegiaren aurreko polizia-zitazioan, honek 487. artikuluan aurreikusitakoa ezarri dezake.</p> <p>4º Polizia Judizialaren deiari erantzunez, bertaraturiko lekukoei entzungo die. Guardiako Epaitegiaren aurrean edozein lekuko agertu ezean, honek 420. artikulua aurreikusitakoa ezarri ahal izango du.</p> <p>5º 776. artikulua aurreikusitako informazioak gauzatuko ditu.</p> <p>6º Inputatuarekin taldeko identifikazio-saioa egingo da, hala badagokio eta lekukoa bertan agertu bada.</p>

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>badagokio eta lekukoa bertan agertu bada.</p> <p>7º Beharrezkotzat joz gero, honako hauen arteko bekaldura antolatuko du: lekukoak; lekukoak eta inputatuak; eta inputatuak.</p> <p>8º <i>Bere aurrean agertu behar diren pertsonen zitazioa antolatuko du egoki deritzonaren arabera.</i></p> <p>9º Burutu beharreko edozein eginbideren praktika aginduko du, egintzan bertan edo 799. artikulua ezarritako epearen barruan gauzatzeko modukoa.</p> <p>2. Lekuko edo biktima baten bizitokia dela-eta edo bestelako arrazoiengatik, froga bat ahozko epaiketan egin ezin izatearen kezka dagoenean, edo horrek etenaldia eragin dezakeela uste bada, Guardiako Epaileak hori berehalakoan egingo du; edonola ere, alderdien arteko kontraesanak sortarazteko aukera bermatu behar duelarik.</p> <p>Eginbide hori grabatzeko eta soinua erreproduzitzeko egokia den euskarrian edo Idazkari Judizialak baimendutako aktaren bidez dokumentatu beharko da, esku hartzen dutenak adieraziz.</p> <p>Epaian froga gisa baloratua izan dadin, horretaz arduratutako alderdiak ahozko epaiketan eginbidearen grabazioa edo hitzez hitzezko irakurketa erreproduzitzeko eskatu beharko du, 730. artikulua arabera.</p>	<p>7º Beharrezkotzat joz gero, honako hauen arteko bekaldura antolatuko du: lekukoak; lekukoak eta inputatuak; eta inputatuak.</p> <p>8º Bere aurrean agertu beharreko pertsonen zitazioa aginduko du, baita ahozkoa ere. Ondore horietarako, atestatuan esku hartu duten Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideak zitatzeari ez da burutu beharko, beren aitorpena bertan agertzen bada, honako salbuespenarekin: hurrengo artikuluan jasotako ebazpenetarikoa bat hartu baino lehen, arrazoituriko ebazpenaren bidez eta ezohiko moduan, bere aitorpena berriro egitea ezinbestekotzat jotzen duenean.</p> <p>9º Burutu beharreko edozein eginbideren praktika aginduko du, egintzan bertan edo 799. artikulua ezarritako epearen barruan gauzatzeko modukoa.</p> <p>2. Lekuko edo biktima baten bizitokia dela-eta edo bestelako arrazoiengatik, froga bat ahozko epaiketan egin ezin izatearen kezka dagoenean, edo horrek etenaldia eragin dezakeela uste bada, Guardiako Epaileak hori berehalakoan egingo du; edonola ere, alderdien arteko kontraesanak sortarazteko aukera bermatu behar duelarik.</p> <p>Eginbide hori grabatzeko eta soinua erreproduzitzeko egokia den euskarrian edo Idazkari Judizialak baimendutako aktaren bidez dokumentatu beharko da, esku hartzen dutenak adieraziz.</p> <p>Epaian froga gisa baloratua izan dadin, horretaz arduratutako alderdiak ahozko epaiketan eginbidearen grabazioa edo hitzez hitzezko irakurketa erreproduzitzeko eskatu beharko du, 730. artikulua arabera.</p> <p>3. Defentsarako esleituriko abokatuak ere bere defendatua ordezkatzeko ahalmen legala edukiko du Guardiako Epaitegiaren aurrean egindako jarduerak guztietan.”</p> <p style="text-align: center;"><u>797. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
---	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) 2003ko urriaren 28tik indarrean dagoen urriaren 24ko 13/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 797.1 artikulua edukia aldatu du, guardiako epaileak premiazko eginbideak gauzatzearabakitzeko autoa errekurtsioa salbuesteko zentzu bakarrean. Errekurrizko ezintasun hori legeak honako balizkoetan ezartzen zuen eta duenaren arabera da: epaileak buruturiko eginbideak nahikoak direla uste duenean IV atalburuaren prozedurari eustea agintzen badu (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 798.2

artikulua) edo epaileak ahozko epaiketa erabakitzen duenean (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 800. artikulua).

2º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 791.5 artikulua edukia aldatu du. Horren arabera, Prozedura kriminalari buruzko Legearen 109. eta 110. artikuluen edukia buruz ofendutuari eta kaltetuari eskaini beharreko informazioa guardiako epaileak emango du. Hala egiten da lehenago Polizia Judizialak informazio hori eman ez badu. Interpretazio horretara heldu behar da 776. artikulua testu legal berriari jarraituz, aurretiazko eginbideen arauketaren barruan, lehenago polizia judizialak aipatutako informazioa eskaini ezean emango delarik.

3º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 796.1.4 artikulua edukia aldatu du. Polizia Judizialak ez ditu atestatuan esku hartu duten Estatuaren Segurtasun Indarren eta Kidegoen kideak deitu behar beraien aitortza bertan jasota egonez gero. Arrazoi beragatik, ezinbestekotzat jo ezean, Guardiako Epaileak beraien zitezko eta aitortza ez ditu erabakiko. Praktikak erakutsi duenez, beraien aitortza sarritan ez da beharrezkoa izaten ikerketaren helburuetarako eta, are gehiago, eta hala badagokio, Epaileak beti erabaki dezake beren aitortza erabaki premiazko egingibide gisa, legeak aurreikusitakoaren arabera.

4º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak aipatutako artikulua dagokionez, atal berria gehitu du, hirugarrena, hain zuzen ere. Prozedura kriminalari buruzko Legearen 797.3 artikulua defentsako abokatuari ematen dio berak defendatutakoaren ordezkari, guardiako epailearen aurrean egindako eginbideei dagokienez. Ageriko helburu praktikoko aipatutako artikulua sartzea justifikatzen dute. Halaber, horren edukia aurretiazko eginbideetarako aurreikusitako arauketari dagokio.

1.2.4.- 798. artikulua: burututako eginbideen zein badaezpadako neurrien nahikotasunari buruzko alderdien entzunaldia

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
1. “Jarraian, Epaileak bertaratutako alderdiak eta Ministerio Fiskala entzungo ditu hurrengo atalean aurreikusitako ebazpenen artean hartu behar denari buruz. Gainera, alderdi akusatzaileek eta Ministerio Fiskalak inputatuaren aurrean edo, hala badagokio, erantzule zibilaren aurrean, badaezpadako neurrietariko edozein eskatu ahal izango dute, aurretiaz hartu zitezkeen kaltetan gabe.	1. “Jarraian, Epaileak bertaratutako alderdiak eta Ministerio Fiskala entzungo ditu hurrengo atalean aurreikusitako ebazpenen artean hartu behar denari buruz. Gainera, alderdi akusatzaileek eta Ministerio Fiskalak inputatuaren aurrean edo, hala badagokio, erantzule zibilaren aurrean, badaezpadako neurrietariko edozein eskatu ahal izango dute, aurretiaz hartu zitezkeen kaltetan gabe.

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>2. Guardiako Epaileak ebazpena emango du hurrengo edukietariko batekin:</p> <p><i>1º Burututako eginbideak nahikotzat joz gero, autoa ahoz emango ditu, dokumentatu beharko delarik. Halaber, ezin izango da inongo errekurtsorik aurkeztu, hurrengo atalburuaren prozedurari eustea aginduz, 779. artikulua 1. atalaren lehenengo hiru zenbakietan aurreikusitako erabakietariko bat egoki deritzon izan ezik.</i></p> <p>2º Burututako eginbideak ez nahikotzat joz gero, prozedurak era laburbilduaren aurretiazko eginbide gisa irautea aginduko du. Epaileak modu arrazoituan adierazi beharko du zeintzuk diren auziaren instrukzioa amaitzeko burutu beharreko eginbideak edo hori ezinezko bilakarazten duten inguruabarrak.</p> <p>3. 779 artikulua 1. ataleko hiru zenbakietan dauden aurretiko erabakietako bat hartuz, Guardiako Epaileak autoa agintzen duenean, bertan inputatuaren eta, hala behar izanez gero, erantzule zibilaren aurreko neurriak hartzeari buruz dagokiona erabakiko du. Badaezpadako neurriei buruz Epaileak erabakitakoaren aurrean 766 artikulua aurreikusitako errekurtsioak egin ahal izango dira. Guardiako Epaileak, badaezpadako neurriak hartzeari buruzko prozedura luzatzea erabakiz, autoa ahoz agintzen duenean, 800. artikulua 1. atalean ezarritakoa kontuan hartuko da.</p> <p>4. Halaber, atzemandako gauzak itzultzea aginduko du, hala dagokionean.”</p>	<p>2. Guardiako Epaileak ebazpena emango du hurrengo edukietariko batekin:</p> <p>1º Burututako eginbideak nahikotzat joz gero, autoa ahoz emango ditu, dokumentatu beharko delarik. Halaber, ezin izango da inongo errekurtsorik aurkeztu, hurrengo atalburuaren prozedurari eustea aginduz, 779. artikulua 1. atalaren lehenengo hiru zenbakietan aurreikusitako erabakietariko bat egoki deritzon izan ezik. Guardiako epaileak eginbideak gauzatzea faltatzen hartuz gero, berehalakoan auzipetuko du, 963. artikulua arabera.</p> <p>2º Burututako eginbideak ez nahikotzat joz gero, prozedurak era laburbilduaren aurretiazko eginbide gisa irautea aginduko du. Epaileak modu arrazoituan adierazi beharko du zeintzuk diren auziaren instrukzioa amaitzeko burutu beharreko eginbideak edo hori ezinezko bilakarazten duten inguruabarrak.</p> <p>3. 779 artikulua 1. ataleko hiru zenbakietan dauden aurretiko erabakietako bat hartuz, Guardiako Epaileak autoa agintzen duenean, bertan inputatuaren eta, hala behar izanez gero, erantzule zibilaren aurreko neurriak hartzeari buruz dagokiona erabakiko du. Badaezpadako neurriei buruz Epaileak erabakitakoaren aurrean 766 artikulua aurreikusitako errekurtsioak egin ahal izango dira. Guardiako Epaileak, badaezpadako neurriak hartzeari buruzko prozedura luzatzea erabakiz, autoa ahoz agintzen duenean, 800. artikulua 1. atalean ezarritakoa kontuan hartuko da.</p> <p>4. Halaber, atzemandako gauzak itzultzea aginduko du, hala dagokionean.”</p> <p style="text-align: center;"><u>798 ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
---	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 798.2.1 artikulua edukia aldatu du. Horren arabera, erabakitako premiazko eginbideak gauzatu ondoren, guardiako epaileak Falta-Judizioa egin behar dela iritziz gero, berehala auzipetuko du, horren burutzapena atzeratu gabe. Faltak azkar auzipetzeko ezarritako aurreikuspenari egokitu da honako erreforma, premiazko eginbideak Falta-Judizio bihurtzean, auzipetzeko uneari buruz praktikan sorturiko zalantza batzuk konponduz.

1.2.5.-801. artikulua: adostasuna

<p><i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i></p>	<p><i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i></p>
--	--

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>1. <i>787 artikulua</i>ren prozedura honetan ezarritakoaren kaltetan gabe, akusatuak bere adostasuna adierazi ahal izango du Guardiako Epaitegiaren aurrean eta honek adostasuneko epaia emango du. Hala, eginbide guztiak epaia betearazteko Zuzenbide Penaleko dagokion Auzitegira igorriko dira, honako betekizunak biltzen direnean:</p> <p>1º Akusazio partikularrik eratu ez izana eta Ministerio Fiskalak ahozko epaiketa irekitzea eskatzea eta, Guardiako Epaileak hala erabakitzen duenean, hark egintzan bertan akusatzeko idazkia aurkeztu duelarik.</p> <p>2º Akusazioaren helburua diren egitateak honako zigor hauetariko bat edukitzea: hiru urte arteko espetxealdia, edozein kopuru duen isuna edo bestelako zigorra, betiere hamar urte baino gehiago ez dirauenean.</p> <p>3º Askatasuna kentzen duen zigorra izanik, eskaturiko zigorra edo metaturiko zigorrak heren batean murrizturik, ez dituzte espetxealdiko bi urteak gaintutuko.</p> <p>2. <i>Aurreko atalean zehazturiko eremuaren barruan, guardiako epaiketak emandako adostasunaren kontrola egingo du, 787. artikuluan aurreikusitako moduan. Halaber, hala dagokionean, adostasuneko epaia emango du, eskaturiko zigorra heren batean murrizturik ezarrit. Zigor hori askatasuna murrizteko bada, etetea edo ordezteari buruz dagokiona ebatziko du.</i></p> <p>3. Hala dagokionean, askatasuna kentzen duen zigorra etetea erabakitzeko, Zigor Kodearen 81.3 artikulua ezarritakoaren ondoreei begira, Guardiako Epaitegiak zehazturiko badaezpadako epean sortu zitezkeen erantzukizun zibilak betetzeko akusatuak erakutsitako konpromisoa nahikoa izango da. Halaber, Zigor Kodearen 87.1.1 artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, akusatuak drogamenpekotasunari utzi diola edo horretarako tratamendua jasotzen duela esanez, dagokion akreditazioa zein homologazioa duen zentro edo zerbitzu publiko batek emandako egiaztagiri nahikoa beharrezkoa den kasuetan, adostasuna onartu eta askatasuna kentzen duen zigorra etetea erabaki ahal izango da, betiere egiaztagiri hori Guardiako Epaitegiak zehazturiko badaezpadako epean lortzeko akusatuak duen konpromisoarekin.</p> <p>4. Auzian akusazio partikularrik egotekotan, akusatuak bere defentsarako idazkian bere adostasuna erakutsi ahal izango dio akusazio larrienari, aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera.</p>	<p>1. 787 artikuluaren prozedura honetan ezarritakoaren kaltetan gabe, akusatuak bere adostasuna adierazi ahal izango du Guardiako Epaitegiaren aurrean eta honek adostasuneko epaia emango du, honako betekizunak biltzen direnean:</p> <p>1º Akusazio partikularrik eratu ez izana eta Ministerio Fiskalak ahozko epaiketa irekitzea eskatzea eta, Guardiako Epaileak hala erabakitzen duenean, hark egintzan bertan akusatzeko idazkia aurkeztu duelarik.</p> <p>2º Akusazioaren helburua diren egitateak honako zigor hauetariko bat edukitzea: hiru urte arteko espetxealdia, edozein kopuru duen isuna edo bestelako zigorra, betiere hamar urte baino gehiago ez dirauenean.</p> <p>3º Askatasuna kentzen duen zigorra izanik, eskaturiko zigorra edo metaturiko zigorrak heren batean murrizturik, ez dituzte espetxealdiko bi urteak gaintutuko.</p> <p>2. Aurreko atalean zehazturiko eremu horren barruan, guardiako epaitegiak, adostasunaren kontrola egingo du 787 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta, hala badagokio, adostasuneko epaia ahoz emango du, 789. artikuluaren 2. atalean aurreikusitakoari eutsiz. Horren arabera, eskaturiko zigorra heren batean murrizturik ezarriko du, Zigor Kodean aurreikusitako muga minimoa baino txikiagoa den zigorra ezarri arren. Fiskalak eta bertaratutako alderdiek ez errekurritzeko erabakia adieraziz gero, epaileak egintzan bertan epai irmoa adieraziko du eta, zigorra askatasuna kentzekoa bada, dagokiona ebatziko du bera etetea edo ordezteari buruz.</p> <p>3. Hala dagokionean, askatasuna kentzen duen zigorra etetea erabakitzeko, Zigor Kodearen 81.3 artikulua ezarritakoaren ondoreei begira, Guardiako Epaitegiak zehazturiko badaezpadako epean sortu zitezkeen erantzukizun zibilak betetzeko akusatuak erakutsitako konpromisoa nahikoa izango da. Halaber, Zigor Kodearen 87.1.1 artikuluan jasotakoarekin bat etorritik, akusatuak drogamenpekotasunari utzi diola edo horretarako tratamendua jasotzen duela esanez, dagokion akreditazioa zein homologazioa duen zentro edo zerbitzu publiko batek emandako egiaztagiri nahikoa beharrezkoa den kasuetan, adostasuna onartu eta askatasuna kentzen duen zigorra etetea erabaki ahal izango da, betiere egiaztagiri hori Guardiako Epaitegiak zehazturiko badaezpadako epean lortzeko akusatuak duen konpromisoarekin.</p> <p>4. Adostasuneko epaia emanda eta 2 atalak aipaturiko jardun guztiak gauzaturik, guardiako epaitegiak dagokiona erabakiko du zigortua aske utzi edo espetxeratzeari buruz. Halaber, espetxeratze horren eskakizunak beteko ditu, jardunak idatzitako epaiarekin batera Zigor alorreko Auzitegira bidaliz, horren betearazpenari jarraipena emanez.</p>
---	--

	<p>5. Auzian akusatzaile partikularrik egonez gero, akusatuak bere defentsarako idazkian adostasuna erakutsi ahal izango dio akusazio larrienari, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera.”</p> <p style="text-align: center;"><u>801. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 801.1 artikulua edukia aldatu du. Alde batetik, epaileari adostasuneko epaia ahoz emateko aukera eskaintzen dio, azkarrago jardutea ahalbideratuz, aktan epaia bera eta azalpen laburra soilik eskainiko delako. Horrela, beranduago idaztea ahalbideratzen du bestelako epaiketak burutzea edo guardiako epaitegiaren bestelako eginbideak gauzatea atzeratu gabe. Bestalde, aurreko erredakzioak sorrarazi zezakeen edozein zalantza alboratuz, azkenean ezarritako zigorra heren batean murrizturik, Zigor Kodean ezarritako muga minimoa baino murriztagoa izateko aukera aurreikusten du. Azkenik, epaileak epai irmoa beren beregi adieraztea aurreikusten du, bertara joandakoek eta fiskalak ez errekurritzeko asmoa azaltzen dutenean.

2º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak laugarren atalaren eduki berria eman du, bosgarren atal berriak aurreko edukia bereganatuz. Prozedura kriminalari buruzko Legearen 801.4 artikulua adostasuneko epai irmoaz zigortuaren egoera pertsonalak dakartzan zalantzak azkenean behin betiko argitzen ditu. Horrela, guardiako epaileak adostasuneko epaia ahoz eman ondoren, zigortutakoa aske uzteaz edo espetxeratzeaz ebatzi beharko du. Horretarako, hala behar denean, bere erabakiak eragindako eskakizunak azaldu beharko ditu, jarraian jardunak Penal arloko auzitegira igorritz, horrek ezarritako zigorraren betearazpenari jarraipena eman diezaion. Beraz, zigortuaren egoerari buruzko adostasuneko epaiaren bidez ezarritako zigor irmoa betearazten hasteko ahalmena ematen dio manu berriak guardiako epaileari.

1.2.6.- 962. artikulua: Guardiako Epaitegiaren aurreko Falta-Judizioa

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
1. “Polizia Judizialak Zigor Kodearen 617. edo 620. artikuluetan jasotako falta baten ezaugarriak aurkezten dituen egitate baten berri duenean, betiere ofenditua Kode bereko	1. “Polizia Judizialak Zigor Kodearen 617, -ageriko delitua denean- 623.1 edo 620 artikuluetan jasotako falta baten ezaugarriak aurkezten dituen egitate baten berri

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

153 artikulua hala nola, ageriko delitua denean, Zigor Kodearen 623.1 artikulua aipatutako pertsonetarikoa bada, berehala guardiako epaitegiaren aurrean zitatu behar dira 796. artikuluen 3 eta 4 zenbakiak adierazitako pertsonak. Halaber, bigarren kasuan horien auziperatzea atestatua eman behar zaion Instrukzio Epaitegiari edo partidu judizial bereko beste epaitegi bati dagokio. Zitazioa egitean bertan ez agertzeak dakartzan ondorioez ohartaraziko zaie zitaturikoei. Era berean, falta-judizioa guardiako epaitegian berehalakoan egin ahal izango dela jakinaraziko zaie, bertan froga gisa aurkeztutako baliabideez horniturik agertu behar direlarik. Salatzaileari eta salatuari beren eskubideen berri emango zaie, 109, 110 eta 967 artikuluetan ezarri bezala.

2. Salatutako pertsonari laburbildurik jakinaraziko zaizkio salaketaren oinarri diren egitateak eta abokatuaz lagundurik agertzeko eskubideaz. Edonola ere, informazio hori idatziz emango da.

3. Kasu hauetan, Polizia Judizialak atestatua emango dio burututako eginbideak eta, hala badagokio, ofendituaren salaketa agertzen den Guardiako Epaitegiari emango dio.

4. Artikulu honek aipatutako zitazioak burutzeko, Polizia Judizialak Guardiako Epaitegiaren lankidetzaz agerraldiaren ordua zehaztuko du. Ondore horietarako, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak zitazio horiek gauzatzeari buruzko Instrukzio Epaitegiaren guardiako zerbitzuak antolatzen dagozkion Araudiak sortuko ditu, Polizia Judizialarekin lankidetzan, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 110. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.”

duenean, berahala zitatuko ditu goardiako epaitegiaren aurrean ofendituak eta kaltetuak, salatzailea, salatutakoa eta egitateen berri eman dezaketen lekukoak. Azken kasuan, ofenditua Kode bereko 173.2 artikulua aipaturiko pertsonetarikoa bat izango da, bere auziperatzea atestatua jaso beharreko Instrukzio Epaitegiari edo partidu judizial bereko beste bati dagokiolarik.

Zitazio hori egitean guardiako epaitegiaren aurrean ez agertzearen hurrenez hurreneko ondorioez ohartaraziko zaie zitaturiko pertsonari. Halaber, falta-judizioa guardiako epaitegian berehalakoan egin ahal izango dela ohartaraziko zaie, baita agertu ezean ere, bertan froga gisa aurkeztutako baliabideez horniturik agertu behar direlarik. Salatzaileari eta salatuari beren eskubideen berri emango zaie, 109, 110 eta 967 artikuluetan ezarri bezala.

2. Salatutako pertsonari laburbildurik jakinaraziko zaizkio salaketaren oinarri diren egitateak eta abokatuaz lagundurik agertzeko eskubideaz. Edonola ere, informazio hori idatziz emango da.

3. Kasu hauetan, Polizia Judizialak atestatua emango dio burututako eginbideak eta, hala badagokio, ofendituaren salaketa agertzen den Guardiako Epaitegiari emango dio.

4. Artikulu honek aipatutako zitazioak burutzeko, Polizia Judizialak Guardiako Epaitegiaren lankidetzaz agerraldiaren ordua zehaztuko du. Ondore horietarako, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak zitazio horiek gauzatzeari buruzko Instrukzio Epaitegiaren guardiako zerbitzuak antolatzen dagozkion Araudiak sortuko ditu, Polizia Judizialarekin lankidetzan, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 110. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.”

962. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 962.1 artikuluen edukia aldatu du. Horrela, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak etxe indarkeriaren alorrean sartutako Zigor Kodearen erreformaren manua egokitu du. Horregatik, etxe indarkeriaren lesio-falten aipamena desagertu da, Zigor Kodearen 153. artikuluen delitua osatzera igaro da. Halaber, Zigor Kodeko 620. artikuluen

ofenditutakoen aipamena, -faltak, mehatxuak, derrigortzeak eta irainak izendapenarekin-, 173.2 artikuluan aurreikusitako arlo berrira igaro da.

2º) Bestalde, erreformaren arabera, Zigor Kodearen 623.1 artikulua ageriko ebasketak falten auzipetze azkarraren arloan dirau, bere eremuaren baitan lesioengatiko edozein falta barne hartuz.

1.2.7.- 965. artikulua: guardiako zerbitzuak dirauen bitartean Falta-Judizioa egiterik eza

Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua	Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa
<p>1. “Juizioa ezin bada berehalakoan burutu, Guardiako Epaitegiak honako arauak jarraituko ditu:</p> <p>1ª Auzipetzeko eskumena beste partidu judizial bateko Epaitegi bati edo partidu bereko Bake-epaitegi bati dagokiola uste izanez gero, egindako igorriko dio horrek epaiketa eta zitazioen data jarri dezan.</p> <p>2ª Auzipetzeko eskumena Instrukzioko Epaitegiari berari edo partidu judizialaren beste Instrukzioko Epaitegi bati baldin badagokio, orduan falta-judizioaren eta dagozkion zitazioaren data lehenbailehen jarriko du eta, edonola ere, zazpi eguneko gehieneko epean. Epaietaren eguna eta zitazioak bi eguneko gehieneko epearen barruan jarriko dira Zigor Kodearen 617. edo 620. artikuluetan zehazturiko faltak direnean, betiere ofenditua Kode bereko 153; artikuluan aipaturiko pertsonetariko bat denean, hala nola 623.1 artikuluan jasotako falta denean ere, agerikoa denean.</p> <p>Zitazioak Ministerio Fiskalari egingo zaizkio, falta jazargarria denean salbu, egitateak azaldu ditzaketen alderdi edo kereila-jartzaile batek zein salatutakoak edo lekukoek eta adituek horrela eskaturik</p> <p>2. Falta-judizioa Epaitegi berean burutu behar ez denean, honek organo judizial epai-emaietan horretarako beren beregi aurrez zehazturiko egun eta orduetan jarriko ditu epaiketa eta zitazioak. Ondore horietarako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak dagozkion Araudiak aginduko ditu, Ministerio Fiskalarekin lankidetzan, Guardiako Epaitegiek egindako falta-judizioen eguna jarri dezan, partidu judizial bereko beste Instrukzioko Epaitegien aurrean burutu daitezzen.</p>	<p>1. “Juizioa ezin bada burutu guardiako zerbitzuak dirauen bitartean, epaitegiak honako arauak jarraituko ditu:</p> <p>1º Auzipetzeko eskumena instrukzio epaitegiari berari baldin badagokio, edozein modutan, Falta-Judizioa eta dagozkion zitazioak burutze aldera lan egutegian gertuen dagoen eguna jarriko du, betiere horretarako aurrez zehazturikoen artean eta, edonola ere, zazpi eguneko gehieneko epean.</p> <p>2º Auzipetzeko eskumena beste epaitegi bati dagokiola uste badu, egindakoa igorriko dio epaiketa eta zitazioen eguna jarri ditzan, aurreko arauan ezarritakoaren arabera.</p> <p>2. Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110. artikuluan ezarritakoaren arabera, Falta-Judizioen daten zehaztapena antolatze dagozkion araudiak sortuko ditu Ministerio Fiskalarekin lankidetzan”.</p> <p style="text-align: center;"><u>965. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 965 artikulua aldatu du. Erreformatik Falta-Judizioaren data eta dagozkion zitazioak zehaztu beharra ezabatzen du, guardiako zerbitzuan epaiketa egin ezin denean, auzipetzeko eskumena partidu judizial bereko beste auzitegi batekoa izanik, lehenago guardiako epaitegiak egin behar baitzituen. Erreformataren bidez, guardiako epaitegiak soilik jarriko du data, zazpi eguneko gehieneko epea errespetatuz egitateak auzipetzeko eskuduna izatekotan. Partidu judizial bereko edo beste bateko epaitegi batek eskumena edukiz gero, eginbideak berari igortzera mugatuko da. Eskudun epaitegiak, azkenik, bere aldetik data eta dagozkion zitazioak adieraziko ditu, zazpi eguneko legezko epea errespetatuz.

1.2.8.- 966. artikulua: epaiketarako zitazioak

<i>Prozedura kriminalari buruzko Legearen aurreko manua</i>	<i>Prozedura kriminalaren Legean orain jasotako erredakzioa</i>
<p><i>“Falta-epaiketen eguna eta zitazioak aurreko artikuluan aurreikusitako eran eta epeetan jarriko dira, Guardiako Epaitegiak egiten ez dituenean ere”.</i></p>	<p>“Aurreko artikuluan aurreikusitako falta-judizioa egiteko zitazioak Ministerio Fiskalari egingo zaizkio, 969. artikulua 2. atalak aipaturiko balizkoetan izan ezik: egotekotan, kereila jartzen duena edo salatzailea, salatutakoa eta lekukoak eta egitateen berri eman dezaketen lekukoak eta adituak.”</p> <p style="text-align: center;"><u>966 ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1º) Jorratutako manuari dagokionez, 2003ko azaroaren 27tik indarrean dagoen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak Prozedura kriminalari buruzko Legearen 966. artikulua aldatu du. Artikulu honen erredakzio berria aurreko artikulua moldatzearen ondorio hutsa da. Alde batetik, falta-judizioa egiteko epearen aipamena kentzen du, hots, gehienez zazpi eguneko epea, aurreikuspen hori 965. artikulua bere eduki berrian jasotzen baitu. Bestalde, eduki berri horrek epaiketara deitu beharrekoak zehazten ditu, hau da, Ministerio Fiskala, ofendituak edo kaltetuak aurrez jarritako salaketarekin soilik jazarri daitezkeen falta izan ezik, salatzailea, salatutakoa, lekukoak eta adituak, aurreko 965. artikulua zehazten zuen moduan.

1.3.- BIKTIMAREN ESTATUTUA ESPAINIAR PROZESU PENALEAN

- Delituaren biktimaren erregimen juridikoa laburbiltzeko koadroa.
- Joaquin Delgado Martin, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Abokatua.

<u>1.- PROZEDURAREN HASIERA</u>
<u>2.- KALETA KONPONTZEA</u>
<u>3.- DUINTASUNA</u>
<u>4.- INFORMAZIOA</u>
<u>5.- BABESA</u>
<u>6.- ALDERDI BAKOITZAREN ESTATUTUA</u>

OHARRA: 1 edo 5 atalen artean jasotako eskubideak delituaren biktimari dagozkio, prozesu penalean alderdi baten izaera eduki ez arren.

1.3.1.- Prozeduraren hasierako eskubideak

1) <u>PROZEDURAREN HASIERA</u>	Prozesua hasteko eskubidea arau-haustura erdipribatuetan, erdipublikoetan edo pribatuetan.	<ul style="list-style-type: none"> • Kereila delitu pribatuean • Salaketa delitu edo falta erdipribatu edo erdipublikoetan
---------------------------------------	--	--

1.3.2.- Kaltea konpondua izateko eskubidea

2) <u>KALTEA KONPONTZEA</u>	Delituak eragindako kaltea konpondua izateko eskubidea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintza zibila egiteko aukera • Ministerio Fiskalak bere interesak babestu ditzake • 35/95 Legearen balizkoetan Estatuak ordaindutako konpentsazioa
------------------------------------	---	---

1.3.3.- Duintasunerako eskubidea

3) <u>DUINTASUNA</u>	Biktimaren duintasuna parte hartzen duen prozesu guztietan errespetatua izateko eskubidea.	<ul style="list-style-type: none"> • Oro har: beste baten biktimizazioa ezabatzeko edo murrizteko elementu multzoa (Justiziaren aurreko Herritarren Eskubide-Gutunaren 22 eta ss atalak). • Bereziki kaltetuak izan daitezkeen biktimen tratu espezifikoak: adingabeak, nagusiak... (Justiziaren aurreko Herritarren Eskubide-Gutunaren 26 eta ss atalak). • <u>Biktima eta erasotzailearen</u> arteko aurkamendua ekiditea: etxe indarkeria (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544. artikulua ter. 4.3) eta adingabeak (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 448.3 eta 707.2 artikulua)
-----------------------------	--	--

1.3.4.- Informaziorako eskubidea

4) <u>INFORMAZIOA</u>	Prozesu penalaren alderdiei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, bere interesak babesteko esanguratsuak direnean, prozesuaren alderdia osatu ez arren.	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Egintzak eskaintzea</u> (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 109, 110, 776 eta 771.1 artikulua) • <u>Informazio puntualak</u> eman beharra honako gaiei buruz: <ul style="list-style-type: none"> ○ Kalteordaina eta doako justizia jasotzeko aukera. ○ Epaiketa egitea (data eta tokia) eta dagokion ebazpena (35/95 Legearen 15. artikulua). ○ Emandako ebazpena (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 785.3, 789.4, 973.2 eta 976.3 artikulua). ○ Bere segurtasunean eragina izan dezaketen egintza prozesalak, Zigor Kodearen 57. Artikuluaren kasuetan (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 109. artikulua). ○ Babesteko agindua (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544. artikulua). • Honi buruz <u>informazio iraunkorra</u> emateko betebeharra. <ul style="list-style-type: none"> ○ Inputatuaren egoera prozesala (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544. artikulua) ○ Badaezpadako neurriak (Prozedura
------------------------------	--	---

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

		<p>kriminalari buruzko Legearen 544. artikulua).</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Erasotzailearen espetxean duen egoera (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544. artikulua).
--	--	---

1.3.5.- Babeserako eskubidea

<p>5) <u>BABESA</u></p>	<p>Bere segurtasunaren babes-maila egokia jasotzeko eskubidea jazarpena jasateko edo indarkeriak behin eta berriz emateko arrisku larria dagoenean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Biktimaren babes leku gisa agertzen denean:</u> 19/94 Legea. • <u>Prozedura kriminalari</u> buruzko Legearen 544. Artikuluaren babes-agindua (neurri penalak, zibilak eta asistentziazkoak nahiz babes sozialekoak). • <u>Bere babes helburu duten neurri penalak:</u> <ul style="list-style-type: none"> ○ Behin behineko espetxealdia ○ Prozedura kriminalari buruzko Legearen 13. Artikulua ○ Prozedura kriminalari buruzko Legearen 544 bis artikulua ○ Kode Zibileko 158. artikulua ○ Beste batzuk
--------------------------------	---	--

1.3.6.- Alderdiaren izaera

<p>6) <u>ALDERDIAREN IZAERA</u></p>	<p>Alderdiaren estatutua jasotzeko eskubidea ordenamenduaren eskakizunak betetzen ditutenean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <u>Alderdia izateko eskakizunak</u> sinpletzea: kereila ez da beharrezkoa (Prozedura kriminalari buruzko Legearen 961.2 artikulua). • <u>Behin prozesu penaleko alderdiaren izaera lorturik:</u> alderdi gisa marko legalaren barruan jarduteko aukera osoa.
--	---	---

2.- ZIGOR KODEAREN ERREFORMAK

- Eragindako manuak:
 - **Zigor Kodearen 37, 39, 40, 46, 48, 49, 57, 83, 84, 88, 153, 173, 468, 617 eta 620. artikulua**
- Honako Legeek eragindako aldaketak:
 - **Irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa** (BOE: 2003ko irailak 30) argitaratu ondorengo egunean indarrean sartu zelarik
 - **Zigor Kodearen aldaketari buruzko irailaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa** (BOE: 2003ko irailak 26) argitaratu ondorengo egunean indarrean sartu zelarik
- **Artikuluen aztertzaileak: Vicente Magro Servet eta Inmaculada Montalban Huertas**

2.1.- ALDERDI OROKORRAREN ERREFORMAK

2.1.1.- 37. artikulua: etengabeko lokalizazioaren zigorra

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>1. Asteburuko atxiloaldiak hogeita hamasei ordu iraungo du eta, edonola ere, askatasunik gabeko bi eguneko epetzat hartuko da. Gehienez hogeita lau asteburuko atxiloaldia ezarri daiteke, honako salbuespenarekin: zigorra askatasunik gabeko beste baten ordezkoa izatea; hala gertatuz gero, bere iraupena Kode honen 88. artikuluan jasotako arauak ezartzetik eratorritakoa izango da.</p> <p>2. Ostiral, larunbat eta igandeetan beteko da, atxilotuaren bitokitik gertuen espetxean.</p> <p>Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, epaia luzatzen duen Epaileak edo Epaitegiak asteburuko atxiloaldia astegunetan egitea agindu dezake, presoarekin adosturik eta Ministerio Fiskala horren jakitun izanik, edo partidu judizialean Espetxerik egon ezean, ahal den guztietan, zigortua bizi den partidu judizialean, ahal den guztietan, udal gordailuetan.</p> <p>3. Zigortuak justifikatu gabeko bi ausentzia edukiz gero, Zaintzako Epaileak atxiloaldia etengabe erabaki dezake, zigorra ez betetzeagatik aitorpena egin dezala ere eskatu dezakeelarik.</p> <p>4. Gauzatzeko moduari buruzko gainerako inguruabarrak arauz ezarriko dira espetxeari buruzko legean</p>	<p>1. Behin betiko lokalizazioak hamabi urte arteko iraupena izango du. Hori betetzeak zigortua bere etxean edo Epaileak epaiaren bidez zehazturiko toki batean egotera behartzen du.</p> <p>2. Atxilotuak hala eskatuz gero, eta inguruabarrengatik gomendagarria baldin bada, behin ministerio fiskala entzunda, epaia luzatzen duen epaileak edo epaitegiak zigorra larunbat eta igandeetan edo etenaldiakin betetzea erabaki dezakete.</p> <p>3. Zigortuak zigorra bete ezean, epaia luzatzen duen epaileak edo epaitegiak bere aitorpena jasoko du 468. artikulua xedaturikoarekin bat etorritik.</p> <p style="text-align: center;"><u>37. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

<p>xedatutakoarekin bat etorritik. Horren arauak Kode honetan beren beregi aurreikusitako ez denaren ordezkaria izango dira.</p>	
--	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/95 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa asteburuko atxiloaldia kentzen du. Erreforma hori 2004ko urriaren 10ean hasiko da indarrean.

2.- Asteburuko atxiloaldiaren zigorra, kasuaren arabera, iraupen laburreko espetxealdiarekin ordeztu da – hiru hilabetetik gora delituetan-, gizartearentzako lanak egiteko zigorraz edo etengabean lokalizatua izatekoaz. Asteburuko atxiloaldiko zigorra kentzea aipaturiko legearen Arrazoien Zerrendan justifikatzen da, bere ezarpen praktikoa ez baita egokia izan.

3.- Etengabean lokalizatua izateko zigorra 15/2003 Lege Organikoa sartutako berrikuntza da. Bere Arrazoi-Zerrendan erantzun penala eman nahi die arau-haustura arinei, espetxeratua izateak dakartzan ondorio txarrak ekidinez. Teknologiaren garapenak ematen dituen baliabide berriak ezartzean datza, etxean edo epaileak zein epaitegiak adierazitako tokian betetzea espero delarik, hurrenez hurrenekoak edo asteburuetan, epaia luzatzen duen epaileak edo epaitegiak egoki deritzaion moduan.

2.1.2.- 39. artikulua: eskubideak murrizten dituzten zigorrak

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>Eskubideak murrizten dituzten zigorrak honako hauek dira:</p> <p>a) Desgaikuntza absolutua.</p> <p>b) Desgaikuntza berezia honakoetarako: enplegu edo kargu publikoa, lanbidea, ofizioa, industria edo merkataritza, guraso-ahalaren eskubideak, tutoretza, zaintza edo kuradoretza, eta botoa emateko eskubidea.</p> <p>c) Enplegu edo kargu publikoa etetea.</p> <p>d) Motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea.</p> <p>e) Armak edukitzeko eta eramateko eskubidea kentzea.</p> <p>f) Hainbat tokitan bizi edo horietara joateko eskubidea kentzea, biktimarengana edo Epaileak zein Epaitegiak zehazturiko senideengana edo bestelako pertsonengana hurbiltzea debekatzea, hala nola beraiekin harremanetan</p>	<p>Eskubideak murrizten dituzten zigorrak honako hauek dira:</p> <p>a) Desgaikuntza absolutua.</p> <p>b) Desgaikuntza berezia honakoetarako: enplegu edo kargu publikoa, lanbidea, ofizioa, industria edo merkataritza, edo Kode honetan zehaztutako beste jarduerak, guraso-ahalaren eskubideak, tutoretza, zaintza edo kuradoretza, eta botoa emateko eskubidea.</p> <p>c) Enplegu edo kargu publikoa etetea.</p> <p>d) Motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea.</p> <p>e) Armak edukitzeko eta eramateko eskubidea kentzea.</p> <p>f) Hainbat tokitan bizi edo horietara joateko eskubidea kentzea.</p> <p>g) Biktimarengana edo Epaileak zein Epaitegiak zehazturiko senideengana edo bestelako pertsonengana hurbiltzea debekatzea, hala nola beraiekin harremanetan jartzea ere.</p> <p>h) Biktimarekin edo bere senide edo Epaileak zein Epaitegiak zehazturiko bestelako pertsonekin komunikatzeko debekua.</p> <p>i) Gizartearentzako lanak.</p>

jartzea ere.

39. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Modu autonomoan zein independentean kontuan hartuko dira honako zigorrak: hainbat tokitan bizi edo horietara joateko eskubidea kentzea, hala nola biktimarengana edo Epaileak zein Epaitegiak zehazturiko senideengana edo bestelako pertsonengana hurbiltzea ere.

2.- Zigor Kodearen 39. Artikuluan sarturiko zigorrak Zigor Kodea aldatzeko 1995.eko ekainaren 9ko 14/1999 Lege Organikoaren 1. artikulua 4. atalak bereganatu zituen, tratu txarren biktimak babesteari eta Prozedura kriminalari buruzko Legeari dagokienez (BOE: ekainak 10). Erreformarekin, horietariko bakoitzari 39. artikuluan letra bat ematen zaie, f), g), eta h) osatuz, era autonomoan eta independentean, emandako inguruabarren arabera guztiak edo horietariko bat hartuz.

2.1.3.- 40. artikulua: eskubideak kentzen dituzten zigorren zerrenda

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>Erabateko desgaikuntzako zigorrak sei eta hogeitun urte arteko iraupena edukiko du, honako Kodearen beste manu batzuk salbuespenez xedaturikoa izan ezik; desgaikuntza bereziak, sei eta hogeitun urte bitartekoak; enplegu edo kargu publikoa etetea, sei hilabete eta sei urte bitartekoa; motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea, hiru hilabete eta hamar urte bitartekoa; hainbat tokitan bizi edo horietara joateko eskubidea kentzea, sei eta bost urte bitartekoa, eta gizartearentzako lanak, egunbetea eta urte bat bitartekoa.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Erabateko desgaikuntzako zigorrak sei eta hogeitun urte arteko iraupena edukiko du, honako Kodearen beste manu batzuk salbuespenez xedaturikoa izan ezik; desgaikuntza bereziak, sei eta hogeitun urte bitartekoak; enplegu edo kargu publikoa etetea, sei hilabete eta sei urte bitartekoa. 2. Motordun ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubidea kentzea, hiru hilabete eta hamar urte bitartekoa. 3. Hainbat tokitan bizi edo horietara joateko eskubidea kentzea, hamar urte artekoa. Biktimarengana edo bere senideengana zein bestelako pertsonengana hurbiltzeko edo beraiekin harremanetan jartzeko debekua, hilabetea eta hamar urte artekoa. 4. Gizartearentzako lanak egiteko zigorrak egunbetea eta urte bat artekoa izango da. 5. Zigor hauetariko bakoitzaren iraupena aurreko ataletan aurreikusitakoa izango da, honako Kodearen beste manu batzuk salbuespenez xedaturikoa izan ezik. <p style="text-align: center;"><u>40. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Hainbat tokitan bizitzeko edo horietara joateko debekua luzatzen da, indargabeturiko araudian zegoen sei hilabete eta bost urte arteko zigorretik hamar urte artekora.

2.- Biktimarengana edo senideak zein izendaturiko pertsonengana hurbiltzeko debekuaren zigorra luzatzen da, aurreikusitakotik hilabetea eta hamar urte artekora.

2.1.4.- 46. artikulua: guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiuntza berezia

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
Guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiuntza bereziak aurrekoari dagozkion eskubideak kentzen dizkio zigortuari. Halaber, gainerako eskubideen ezabaketa eta kargu horietarako izendapena lortzeko desgaiuntza dakartza, zigorrak dirauen bitartean.	Guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaiuntza bereziak aurrekoari dagozkion eskubideak kentzen dizkio zigortuari. Halaber, gainerako eskubideen ezabaketa eta kargu horietarako izendapena lortzeko desgaiuntza dakartza, zigorrak dirauen bitartean. Epaileak edo epaitegiak honako zigorra erabaki dezake zigortuaren esku dauden adingabe batzuei edo guztiei dagokienez. <u>46. ARTIKULUAREN AMAIERA</u>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- 15/2003 Lege Organikoan, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera gauzatzeko desgaiuntza bereziak dirau, eskubideak murrizteko zigor gisa.

2.- Gainera, zigortuaren esku dauden adingabeak direla-eta, kasu bakoitzari dagokion zigorraren muga ipintzeko epaileak edo epaitegiak duten ahalmena beren beregi sartu du; horrela, zigorra guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera bezalako egoeran dauden adingabe guztiei edo horietariko bati buruzkoa izan daiteke.

2.1.5.- 48. Artikulua: biktima edo senideengana hurbiltzea debekatzen duen zigorra

Zigor Kodean indargabeturiko manua	Zigor Kodearen oraingo erredakzioa
<p>Hainbat tokitan bizitzeko edo horietara joateko eskubidea debekatzeak delitua egindako lekura edo, desberdinak izatekotan, biktima zein bere senideak bizi diren tokira itzultzeko aukera kentzen dio zigortuari.</p> <p>Biktimarengana edo senideak zein Epaileak zein Epaitegiak adierazitako pertsonengana hurbiltzeko debekuak pertsona horiek aurkitzen diren edozein tokitan beraiengana gerturatzea galarazten dio zigortuari, baita pertsona horien bizitokira, lantokira edo sarritan joaten diren beste edonora.</p> <p>Biktimarekin edo bere senideak eta Epaileak edo Epaitegiak adierazitako pertsonekin harremanetan jartzea debekatzeak zigortuari beraiekin kontaktua edukitzea galarazten die, idatziz, ahoz edo bistaz, horretarako inongo hedabiderik edo baliabide informatiko zein telematikorik erabili ezin duelarik.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. «Hainbat tokitan bizitzeko edo horietara joateko eskubidea kentzeak delitua egindako lekuan edo biktima zein bere senideak bizi diren tokian bizitza edo horietara joatea galarazten dio zigortuari. 2. Biktimarengana edo senideak zein Epaileak zein Epaitegiak adierazitako pertsonengana hurbiltzeko debekuak pertsona horiek aurkitzen diren edozein tokitan beraiengana gerturatzea galarazten dio zigortuari. Halaber, beren bizitokira, lantokira, eta beraiek sarritan joandako edozein lekutara hurbiltzea debekatu zaie, seme-alabei dagokienez bisita-erregimena, komunikazioa eta egonaldia etenda geratzen direlarik, betiere eskubide horiek epai zibilean aitortu badira honako zigorra bete arte. 3. Biktimarekin edo bere senideak eta Epaileak edo Epaitegiak adierazitako pertsonekin harremanetan jartzea debekatzeak zigortuari beraiekin kontaktua edukitzea galarazten die, idatziz, ahoz edo bistaz, horretarako inongo hedabiderik edo baliabide informatiko zein telematikorik erabili ezin duelarik. 4. Epaileak edo epaitegiak neurri hauen kontrola horretarako erabili daitezkeen baliabide elektronikoen bitartez egitea erabaki dezakete. <p style="text-align: center;"><u>48. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- 15/2003 Lege Organikoan honako berrikuntza garrantzitsua aurkitzen dugu: biktima edo bestelako pertsonengana hurbiltzea debekatzen duen zigorrak berekin dakar epai zibilean zehazturiko seme-alabei buruzko bisita-erregimena, komunikazioa eta egonaldia “ex lege” etetearen ondorio juridikoa. Bisita-erregimenaren etenaldi automatikoak hurbiltzea debekatzeko ezarritako zigorra bete arte iraungo du.

2.- Halaber, honako artikulua honek duen baldintzaz ohartarazi behar dugu: biktima, senideak edo pertsona jakinengana hurbiltzeko debekuaren kasuan soilik ezartzen du seme-alabei buruzko bisita-erregimenaren etenaldi automatikoa. Horrela ez da ezarriko beste bi debekuetan: hainbat tokitan bizitzea eta horietara joatea edo biktima nahiz beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea.

3.- Baliabide elektronikoak antolatzeko ahalmen judizialari estaldura legala ematen zaio; horrela, egoitza, hurbiltzea eta harremanetan jartzea debekatzeko zigorren betearazpena kontrolatzea ahalbideratzen da. Arauak zigortuak edo biktimak baliabide elektronikoa eraman beharrari buruz irizpiderik zehazten ez duenez gero, zigortuaren askatasuna kontrolatzeko mekanismoak (homelink) erabili daitezke, hurbiltzeko debekua hautsi den antzemanek, edo satelitearen bidezko GPS jarraipen-sistema erabiltzen duten telealarmak, mugikorrak, eskuturrekoak edo besokoak bezalako baliabide teknikoak biktimen esku jartzeko aukera dago, lotuta dagoen zentro polizialaren alarma aktibatuz.

2.1.6.- 49. artikulua: gizartearentzat lan egiteko zigorra

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>Gizartearentzat lan egiteko zigorrek herri-onurako jardueretan aritzera behartzen dute zigortua, bera ados egon gabe ezarri ezin direlarik. Ezin dute zortzi ordu baino gehiago iraun eta honako baldintzekin gauzatuko dira:</p> <p>1.^a Betearazpena Epailea edo Epaitegiaren kontrolpean egingo da; horretarako, lana gauzatzeko moduari buruzko txostenak eskatu diezazkieke honako hauei: zigortuak bere zerbitzuak eskainitako administrazioa, herri-erakundea edo interes orokorreko elkarteak.</p> <p>2.^a Ez du zigortuaren duintasuna arriskuan jarriko.</p> <p>3.^a Administrazioak eskainiko du gizartearentzako lana, horretarako behar diren hitzarmenak ezarri ditzakeelarik.</p> <p>4.^a Gizarte Segurantzaren alorrean espetxe-legeriak zigortuei eskainitako babesa baliatuko du.</p> <p>5.^a Ez da interes ekonomikoen menpekota izango.</p> <p>Bere betearazpenaren gainerako inguruabarrak araudiaren bitartez ezarriko dira, espetxe-legeriak xedaturikoaren arabera. Halaber, azken honen xedapenek Kode honetan zehaztu ez dena osatuko dute.</p>	<p>“Gizartearentzat lan egiteko zigorrek herri-onurako jardueretan aritzera behartzen dute zigortua, bera ados egon gabe ezarri ezin direlarik. Ezin dute zortzi ordu baino gehiago iraun eta honako baldintzekin gauzatuko dira:</p> <p>1.^a Espetxeratuen Zaintzako Epailearen kontrolpean egikaritutako da, horretarako zerbitzuak eskaini behar zaizkion administrazioari, herri-erakundeari edo interes orokorreko elkarteari egindako lanari buruzko txostenak eskatuko ditu.</p> <p>2.^a Ez du zigortuaren duintasuna arriskuan jarriko.</p> <p>3.^a Administrazioak eskainiko du gizartearentzako lana, horretarako behar diren hitzarmenak ezarri ditzakeelarik.</p> <p>4.^a Gizarte Segurantzaren alorrean espetxe-legeriak zigortuei eskainitako babesa baliatuko du.</p> <p>5.^a Ez da interes ekonomikoen menpekota izango.</p> <p>6.^a Espetxeko Gizarte zerbitzuek behin beharrezko egiaztapenak egin dituztela, Espetxeratuen Zaintzako Epaileari zigorraren betearazpenean egondako gorabehera garrantzitsuen berri emango dute. Edonola ere, honako egoerak kontuan hartuko dira:</p> <p>a) Lanera ez dator bi lanegunetan, betiere jokaera horrekin zigorra betearazteari bere borondatez uko egitea.</p> <p>b) Lantokiaren arduradunak eskatu arren, bere errendimendua eskaturiko gutxienezkoa baino apur bat murriztagoa izatea.</p> <p>c) Bere gauzapenari buruz okupazioaren arduradunak emandako jarraibideak behin eta berriz hala nola ageriko moduan ez betetzea edo horien kontra egitea.</p> <p>d) Beste edozein arrazoi dela medio, bere joakeragatik lantokiaren arduradunak bertan edukitzeari uko egiten dionean.</p> <p>Behin txostena baloratuta, Espetxeratuen Zaintzako Epaileak honako erabakiak hartu ditzake: lantoki berean</p>

	<p>betearaztea, hori beste lantoki batean betearaztera zigortua bidaltzea, edo zigortuak zigorra ez betetakotzat jotzea. Ez betetzekotan, aitortpena entzungo zaio 468. artikulua arabera jokatzeko.</p> <p>7.^a Zigortuak bidezko arrazoiagatik lanera ez badoa, galdutako lana ez da zenbatuko kondenaren likidazioan, honetan ezarritako kopuru orokorretik benetan lan egindako egunak adierazi behar direlarik.”</p> <p style="text-align: center;"><u>49. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	---

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Gizartearentzako lanetan oinarritutako zigorraren betearazpenak Zigor Kodearen erreforman aldaketa garrantzitsua jaso du; izan ere, arauketa hobez gain, betearazpena espetxeratuen zaintzako epailearen esku geratzen da, epaia luzatzen duen epailea edo epaitegiaren orde, aipatutako Arrazoi-Zerrendak ezartzen duen bezala arautuz bera ez betetzearen erregimena.

2.- Betearazpena espetxeratuen zaintzako epailearen esku geratzen da, epaia ematen duen epaileak edo epaitegiak esku hartzerik ez dutelarik, aurretik ez bezala. Zigorraren betearazpenaren barrukotzat hartzen da, espetxeratuen zaintzako epailearen eremuan.

3.- Zigortua bidezko arrazoi delat medio lanera ez badoa, zigorraren likidazioan egun hori ez zaio ordainduko, bestelako neurri osagarririk gabe, baina, argi dagoenez, betiere espetxeratuen zaintzako epailearen ustez bidezko kariagatik huts egiten badu.

2.1.7.- 57. artikulua: epaietan ezarri beharreko debekuak

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
Homizidioa, abortua, lesioak, hala nola askatasun eta kaltegabetasun sexuala, intimitatea, norbere irudiaren eskubidea eta etxebizitza, ohorea eta ondarearen bortxazintasuna eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak ere epaitzen direnean, Epaileek edo Epaitegiek beren epaietan adierazitako epearen barruan –inolaz ere bost urtetik gorakoa-	1. Homizidioa, abortua, lesioak, hala nola askatasun eta kaltegabetasun sexuala, intimitatea, norbere irudiaren eskubidea eta etxebizitza, ohorea eta ondarearen bortxazintasuna eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak ere epaitzen direnean, Epaileek edo Epaitegiek 48. artikuluan adierazitako debekuetariko bat edo batzuk

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>ondoren azaldutako debekuak ezartzea erabaki dezakete:</p> <p>a) Honako pertsonengana hurbiltzea: biktima bera edo Epaileak zein Epaitegiak adierazitako senideak eta gainerakoak.</p> <p>b) Honako pertsonekin harremanetan jartzea: biktima bera edo Epaileak zein Epaitegiak adierazitako senideak eta gainerakoak.</p> <p>c) Delitua izandako lekura edo biktima zein familiaren bizitokira itzultzea, desberdina izatekotan.</p> <p>Artikulu honetan adierazitako debekuak, gehienez sei hilabeteko epe batez, Kode honen 617. eta 620. artikuluetako pertsonen aurkako faltatzat jotako haustura egiteagatik ere ezarri daitezke.</p>	<p>ezartzea erabaki dezakete, gehienez hamar urteko epe batez delitua larria denean, edo gehienez bost urtez, oso larria izatekotan.</p> <p>Hala ere, zigortuak espetxeratzeko zigorra jasoz gero eta Epaileak edo Epaitegiak debeku horietariko bat edo batzuk ezartzea erabakitzen badu, epaian ezarritako espetxeratzeko zigorraren iraupena gainditzen duen epe batez egingo dute, zehatz-mehatz, urtebete eta hamar urte artekoa, delitua larria izatekotan, edo urtebete eta bost duen urtekoa, hain larria ez denean. Balizko honetan, zigortuak espetxeratzeko zigorra eta aurretik aipaturiko zigorrak, halabeharrez, berehalakoan beteko ditu.</p> <p>2. Artikulu honen lehenengo atalaren azken paragrafoan aipaturiko delituen balizkoetan, 48. Artikuluaren bigarren atalean aurreikusitako zigorra ezartzea erabakiko da beti, gehienez hamar urteko epe batez delitua larria denean, edo bost urtekoa delitua hain larria ez denean, aurreko atalaren bigarren atalean xedaturikoaren kaltetan gabe. Aipatu delituen pertsonen aurka egindakoak dira: ezkontidea dena edo izan dena edo zigortuari harreman afektibo baten bidez loturiko pertsona, elkarbizitza gabeko kasuetan ere bai; norberaren edo ezkontidea zein bizikidearen aurrekoak, ondorengoak edo neba-arrebak, naturaren arabekoak, adopziozkoak edo ezkontza bidezkoak izanik; berarekin bizi diren adingabeak edo ezgaiak hala nola ezkontidearen edo bizikidearen ahala, tutoretza, kuradoretza, harrera edo zaintzapean aurkitzen direnak ere; bestelako harreman baten bitartez babesturiko pertsona, horren bitartez familian txertatuta aurkitzen denean; edo zaurtuak izateko arriskuagatik zentro publiko zein pribatuetan zaintzapean daudenak.</p> <p>3. 48. artikuluan zehaztutako debekuak ezarri daitezke, sei hilabeteko epe batez gehienez, 617. eta 620. artikuluetako pertsonen kontra faltatzat jotako lege-haustea egiteagatik.</p> <p style="text-align: center;"><u>57. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Aurreko araudian, debekuen ezarpenean bost urteko epe bateko muga bat jarri bazen, erreforman gehienez hamar urteko epe bateko debeku-neurriak ezarri ahal izango dira, delitua larria balitz, edo bost urtekoa larritasun murrizagoa edukiz gero.

2.- Bigarren paragrafo bat sartzen da artikulu honetan; izan ere, epaileak epaian askatasuna kentzen duen zigorra eta Zigor Kodearen 48 artikuluko debekuetariko bat edo batzuk jarriz gero, aipatu debekua

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

askatasuna kentzen duen zigorra baino luzeagoa den epe batez ezarri beharko du. Debekuaren iraupena askatasuna kentzearena baino luzeagoa izango da, epailearen irizpidearen arabera, urte bat eta hamar arteko epe batez delitua larria izanez gero eta urte bat eta bost artekoa hain larria ez balitz.

Horrela egiten da askatasuna kentzen duen zigorra betetakoan, besteak beste, zigortuak biktimarengana hurbiltzea eragozten duten debeku-neurriak eduki ditzan. Era berean, askatasuna kentzen duten zigorrak eta debeku-neurriak aldi berean betetzea erabaki da, horrela espetxetik ateratzeko baimena daukanean biktimarengana hurbiltzea eragozteko.

3.- Zigor Kodearen 57. artikuluko bigarren atalean ZKren 48.2 artikuluan aurreikusitako neurria adosteko betebeharra sartu da, hain zuzen ere, hurbiltzeko debekua, ZKren 173.2 artikuluan jasotako subjektu pasiboek aritzen direnean. Neurri hori kasu guztietan derrigorrezkoa da eta ez epaileak hautatzekoa, honako esamoldea erabiltzen dela kontuan harturik: “*Kasu guztietan adostuko da*”. Delitu larria denean hamar urte baino gehiago ez du iraungo eta, hain larria ez denean, ordea, gehienez bost urtekoa izango da.

4.-48. artikuluko debeku-neurriak epaian erabakitzeke aukerari eutsi zaio, 617. eta 620. artikuluetako pertsonen kontrako falta dagoen kasuetan, gehienez 6 hileko epe batez. Hala ere, etxe indarkeria dagoenean 620.2 artikulua aipamenean soilik izango luke eragina, horrela, gainerakoak mehatxatu, behartu, iraindu edo bidegabeko moduan iseka arina egiten dituztenak zigortzen dira, ZKren 617. eta 620.1 artikuluetan lehen jasotako kasuek 153. artikuluko delitua osatzen dutelako.

2.1.8.- 83. artikulua: zigorraren betearazpena etetea

Zigor Kodean indargabeturiko manua	Zigor Kodearen oraingo erredakzioa
<p>1. Zigorraren betearazpenaren etendura atxilotuak legea berriro ez hausteko baldintzapean geratuko da, horretarako Epaileak edo Epaitegiak jarritako epearen barruan, Kode honen 80. artikulua arabera. Etendako neurria espetxeratzea izanez gero, epaia emandako Epaileak edo Epaitegiak egoki deritzotenean, etendura honako betebeharrak edo beharrianak betetzeko baldintzapean jarri ahal izango du:</p> <p>1º) Hainbat tokitara joateko debekua.</p> <p>1 bis) Honako pertsonengana hurbiltzeko eta beraiekin harremanetan jartzeko debekua: biktima edo Epaileak zein Epaitegiak adierazitako senideak eta gainerako pertsonak.</p> <p>2º) Bizitokiko Epaileak edo Epaitegiak emandako baimenik gabe alde egiteko debekua.</p> <p>3º) Epaitegian edo Auzitegian zein Administrazioaren zerbitzuan norbera agertzea bere jardueren berri emanez, horiek justifikatuz.</p>	<p>1. Zigorraren betearazpenaren etendura atxilotuak legea berriro ez hausteko baldintzapean geratuko da, horretarako Epaileak edo Epaitegiak jarritako epearen barruan, Kode honen 80. artikulua arabera. Etendako neurria espetxeratzea izanez gero, epaia emandako Epaileak edo Epaitegiak egoki deritzotenean, etendura honako betebeharrak edo beharrianak betetzeko baldintzapean jarri ahal izango du:</p> <p><u>1ª</u> Hainbat tokitara joateko debekua.</p> <p>2ª Honako pertsonengana hurbiltzeko eta beraiekin harremanetan jartzeko debekua: biktima edo Epaileak zein Epaitegiak adierazitako senideak eta gainerako pertsonak.</p> <p>3ª Bizitokiko Epaileak edo Epaitegiak emandako baimenik gabe alde egiteko debekua.</p> <p>4ª Epaitegian edo Auzitegian zein Administrazioaren zerbitzuan norbera agertzea bere jardueren berri emanez, horiek justifikatuz.</p>

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>4º) Hezkuntza, lan, kultur, bide-segurtasuna zein sexualitateari buruzko hezkuntza-programetan eta antzekoetan parte hartzea.</p> <p>5º) Epaileak edo Epaitegiak zigortuaren gizarteratzeari begira egoki deritzen gainerako eginbeharrak betetzea, azken honen aurretiko oniritziarekin, betiere pertsona gisako duintasunaren aurkakoa ez bada.</p> <p>2. Eskudun Administrazioiko zerbitzuek epaia emango duen Epaileari edo Epaitegiari ezarritako jokaera-arauak betetzeko moduaren berri emango diote, gutxienez hiru hilean behin.</p>	<p>5ª Hezkuntza, lan, kultur, bide-segurtasuna zein sexualitateari buruzko hezkuntza-programetan eta antzekoetan parte hartzea.</p> <p>6ª Epaileak edo Epaitegiak zigortuaren gizarteratzeari begira egoki deritzen gainerako eginbeharrak betetzea, azken honen aurretiko oniritziarekin, betiere pertsona gisako duintasunaren aurkakoa ez bada.</p> <p>Kode honen 153 eta 173.2 artikuluetan jasotako delituak izanez gero, Epaileak edo Epaitegiak etenaldiari honako atalaren 1 eta 2 arauetan aurreikusitako obligazioak edo betebeharrak betetzeko baldintza ezarriko dio.</p> <p>2. Eskudun Administrazioiko zerbitzuek epaia emango duen Epaileari edo Epaitegiari ezarritako jokaera-arauak betetzeko moduaren berri emango diote, gutxienez hiru hilean behin.</p> <p style="text-align: center;"><u>83. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	--

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- 15/2003 Lege Organikoak 83. artikulua 1. atala aldatzen du bis atalaren orde zurrungo zenbakia jartzeko; ondorioz, aipaturiko artikulua obligazioak edo betebeharrak aipatzen dituzten zifradun ordinalen zenbaketa ordenatuz.

2.- 153. Eta 173.2 artikuluen delituetako zigorraren kasuan, zigorraren betearazpena eteteo honako baldintza ezartzen du: hainbat tokitara joateko eta biktimarengana edo Epaileak zein Epaitegiak adierazitako bere senideengana nahiz gainerako pertsonengana hurbiltzeko edo beraiekin harremanetan jartzeko debekua (83.1 artikulua 1. eta 2. jokaera-arauak).

2.1.9.- 84. artikulua: zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>1. Finkaturiko etenduraren epean delitua eginez gero, Epaileak edo Epaitegiak zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatuko du.</p> <p>2. Subjektuak etenaldian ezarritako obligazioak edo betebeharrak ez baditu betetzen, Epaileak edo Epaitegiak alderdien aurretiko entzunaldiarekin honako egintzak egin ahal izango ditu: a) Ezarritako jokaera-arauaren orde beste bat jarri. b) Etenaldia luzatzea, betiere bost urtez gehienez. c) Zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea, behin eta berriz beteko ez balitz.</p>	<p>84. artikulua 3. atal berriari honako edukia gehitu zaio:</p> <p>3. Ezeztaturiko zigorra Kode honetako 153. eta 173.2 artikuluetan jasotako delituak egiteagatiko espexeratzeko deneko balizkoetan, Kode honen 83. artikulua lehenengo ataleko 1 eta 2 zenbakietan adierazitako obligazioak edo betebeharrak ez betetzeak zigorraren betearazpenaren etendura ezeztatzea ekarriko du.</p> <p style="text-align: center;"><u>84.3 ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

Neurriariko bat ez betetzeak derrigorrez zigorraren betearazpena etetea ekarriko du, dagokion espetxealdiarekin batera, Zigor Kodearen 85. artikulua 1. atalak zehazten duen bezala.

2.1.10.- 88. artikulua: askatasuna kentzen duen zigorra ordeztzea

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>1. Epaileek eta Epaitegiek alderdiak entzun eta gero epaian bertan edo arrazoituriko autoaren bidez eta betearazpena hasi baino lehen gehienez urtebetekoak diren zigorrak asteburuko atxiloaldiarekin edo isunarekin ordeztu ditzakete, legeak zigor horiek dagokion deliturako aurreikusten ez dituen arren. Horrela egingo da atxilotuaren inguruabarrek, egitatearen izaerak, bere jokaerak eta, zehazkiago, kaltea konpontzeko ahaleginak horrela aholkatzen dutenean, betiere ohiko atxilotuak ez direnean. Atxiloaldiko aste bakoitza asteburuko bi atxiloaldirekin ordeztuko da; eta espetxealdiko egun bakoitza bi kuotako isunarekin. Kasu hauetan, gainera, Epaileak edo Epaitegiak Kode honen 83. artikuluan aurreikusitako obligazioen edo betebeharren betearazpena ezarri dezake.</p> <p>Salbuespen gisa, Epaileek eta Epaitegiek gehienez urte bikoak diren espetxealdiko zigorrak ordeztu diezazkiekete ohikoak ez diren atxilotuei, egitatearen zein egilearen inguruabarrak azterturik, prebentzioaren eta gizarteratzearen helburuak zapuztu ditzakeela ondorioztatzen bada. Kasu hauetan, ordeztzea betekizun berdinekin egingo da, aurreko paragrafoan aldaketa egiteko ezarritako termino eta modulu berdinekin.</p> <p>2. Epaileek eta Epaitegiek asteburuko atxiloaldiak ordeztu ditzakete isunekin edo gizarteratzeko lanekin ordeztu ditzakete. Kasu honetan, asteburuko atxiloaldi bakoitza lau kuotako isunarekin edo bi lanaldirekin ordeztuko da.</p> <p>3. Ordezko zigor osoa edo horren zati bat betetzen ez bada, hasieran ezarritako espetxealdiko edo asteburuko atxiloaldiko zigorra betetako denbora-zatia deskontatuz betearaziko da, aurreko ataletan hurrenez hurren zehaztu diren itzultzeko arauei erreparatuz.</p> <p>4. Ezin izango dira beste batzuk ordeztzeko osatutako zigorrak ordeztu.</p>	<p>1. Epaileek eta Epaitegiek alderdiak entzun eta gero epaian bertan edo arrazoituriko autoaren bidez eta betearazpena hasi baino lehen gehienez urtebetekoak diren zigorrak isun batekin edo gizartearentzako lanekin ordeztu ditzakete, legeak zigor horiek dagokion deliturako aurreikusten ez dituen arren. Horrela egingo da atxilotuaren inguruabarrek, egitatearen izaerak, bere jokaerak eta, zehazkiago, kaltea konpontzeko ahaleginak horrela aholkatzen dutenean, betiere ohiko atxilotuak ez direnean. Espetxealdiko egun bakoitza bi kuotako isunarekin edo lanaldi batekin ordeztuko da. Kasu hauetan, gainera, Epaileak edo Epaitegiak Kode honen 83. artikuluan aurreikusitako obligazioen edo betebeharren betearazpena ezarri dezake, epaian zigor gisa jaso ez badira, zigorraren iraupena gaindituko ez duen denbora-tarte batez.</p> <p>Salbuespen gisa, Epaileek eta Epaitegiek gehienez urte bikoak diren espetxealdiko zigorrak isunarekin edo isuna eta gizartearentzako lanekin ordeztu diezazkiekete ohikoak ez diren atxilotuei, egitatearen zein egilearen inguruabarrak azterturik, prebentzioaren eta gizarteratzearen helburuak zapuztu ditzakeela ondorioztatzen bada. Kasu hauetan, ordeztzea betekizun berdinekin egingo da, aurreko paragrafoan isunaren zigorrari begira aldaketa egiteko ezarritako termino eta modulu berdinekin.</p> <p>Atxilotua kode honen 173.2 artikuluan jasotako delituagatik zigortuz gero, espetxeratzeko zigorra gizartearentzako lanekin soilik ordeztu daiteke. Balizko hauetan, zigortuak berriro hezteko eta tratamendu psikologikorako programa espezifikokoak jarraitzeaz gain, Epaileak edo Epaitegiak zigor osagarria osatuko du, Kode honen 83. Artikulua lehenengo ataleko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako obligazioak edo betebeharrak gordez.</p> <p>2. Ordezko zigor osoa edo horren zati bat betetzen ez bada, hasieran ezarritako espetxealdiko edo asteburuko atxiloaldiko zigorra betetako denbora-zatia deskontatuz betearaziko da, aurreko ataletan hurrenez hurren zehaztu diren itzultzeko arauei erreparatuz.</p> <p>3. Ezin izango dira beste batzuk ordeztzeko osatutako zigorrak</p>

	<p>ordeztu.</p> <p style="text-align: center;"><u>88. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	---

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- 15/2003 Lege Organikoak asteburuko atxiloaldiaren zigorra ezabatzearen ondorioz, ez ohiko atxilotuei ezarritako espetxe-zigorren ordezeko gisa horri buruz egindako aipamenak kentzen dira.

2.- Urtebetea –edo salbuespenez bi urte- gaingitzen ez duten espetxeratzeko zigorren ordezkari –edo salbuespenez bi urtekoak- isunaren zigorra gordetzen da eta gizartearentzako lanek dagokiena gehitu da, espetxeratzeko egun bakoitza bi kuotako isunarekin edo lanaldi batekin ordeztuz.

3.- 15/2003 Lege Organikoak beren beregi adierazten duenez, ohiko etxeko indarkeriaren kasuan –Zigor Kodearen 173.2 artikuluan jasotakoa- espetxeratzeko zigorra isunarekin ordeztu daiteke. Gizartearentzako lanekin soilik ordeztu daiteke eta Epaileak edo Epaitegiak jokatzeko honako bi arauak ezarriko ditu: lehendabizi, berriz hezia izateko eta tratamendu psikologikoa jasotzeko programa espezifikoa; bigarrenez, hainbat lekutara joateko eta biktimarengana, edo bere senideengana nahiz Epaileak zein Epaitegiak adierazitako pertsonengana hurbiltzeko hala nola beraiekin harremanetan jartzeko debekua.

2.2.- ALDERDI BEREZIAREN ERREFORMAK

2.2.1.- 153. artikulua: etxeko ingurunean eragindako lesioen delitua

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>Aurreko 153. artikulua orain Zigor Kodearen 173.2 artikulua osatzen du.</p>	<p>“Hiru hilabete eta urte bat arteko espetxealdiarekin edo hogeita hamaika eta laurogei egun arteko gizartearentzako lanekin edo, edonola ere, urte bat eta hiru urte arteko epe batez armak edukitzeko zein eramateko eskubidea kentzearekin zigortuko da honako egintzetariko bat egiten duena, betiere ofenditua 173.2 artikulua aipaturiko pertsonetarikoa bat denean: edozein baliabide edo prozedura erabilita, beste bati Kode honetan delitutzat jota ez dagoen kalte psikikoa edo lesioa eragiten diona; lesioa eragin gabe kolpatu edo tratatu txarrak ematen dizkiona; armez eta tresna arriskutsuez beste bat mehatxatzen duena. Halaber, Epaileak edo Epaitegiak adingabeokoren edo ezgaiaren interesetarako egoki deritzon, guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko sei hilabete eta hiru urte arteko desgaikuntza</p>

	<p>berezia.”</p> <p><u>153. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
--	---

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Delitua osatzera igaro dira indargabeturiko Zigor Kodearen arauketan faltatzen jota zeuden bi jokaerak, betiere 173.2 artikuluan –aurretik 153.ean- jasotako pertsonetariko baten aurka aipatutako egintzak burutzen direnean.

2.- Jokaera horien zehapena subjektu pasiboen ingurune berezia eta erasotzailearekin daukaten harremanaren arabera egiten da. Horrela, orain delituztat jotako lehenengo bi eraso-motak aurretik Zigor Kodearen 617.1 eta 2 artikuluan zehatuta zeuden, delitua osatzen ez duen lesioa eragitea eta beste inor kolpatzea nahiz berari tratu txarrak ematea zigortzen baitzuten.

3.- Zigor mota horiek 153. Artikuluan txertatzearen abantaila 11/2003 Legearen Arrazoi-Zerrendan bertan jasota agertzen da, honako moduan adierazten baitu: *“Zigor Kodean lesio-faltatzen jotako jokamoldeak, etxeke eremuan egiten direnean delitu bilakatzen dira, espetxeratzeko zigorra ezartzeko aukera dagoelarik. Edonola ere, armak eduki eta eramateko eskubidea kentzeko zigorra ere ezarri da kasu honetan. Hori dela-eta, Zigor Kodearen 617. artikuluan arauturiko falta teknikoki egokitu da.”*

2.2.2.- 173.2 artikulua: ohiko indarkeriaren delitua

<i>Zigor Kodean indargabeturiko manua</i>	<i>Zigor Kodearen oraingo erredakzioa</i>
<p>Aurreko 153. artikulua orain Zigor Kodearen 173.2 artikulua osatzen du.</p> <p>11/2003 Lege Organikoaren artikulua xedatzen zuenez,</p> <p>«sei hilabete eta hiru urte arteko espetxeratzeko zigorra ezarriko zaio honako pertsonengan ohiko indarkeria fisikoa edo psikikoa egiten duenari: bere ezkontidea dena edo izandakoa hala nola harreman afektibo baten bitartez berari loturik dagoen edo egon den pertsona, edo bereak nahiz ezkontidearenak edo bizikidearenak diren seme-alabak ere; edo berarekin bizi diren tutoretzapekoak, aurrekoak edo ezgaiak zein guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, harrera edo izatezko zaintzari loturik daudenak. Hori guzti hori, indarkeria fisikoa edo psikikoaren egintzak gauzatu diren delituei edo faltei dagokien zigoren kaltetan gabe.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Osotasun morala modu larrian kaltetuz, beste persona bati tratu iraingarria ematen dionak sei hilabete eta bi urte arteko espetxeratzeko zigorra jasoko du. 2. Sei hilabete eta hiru urte arteko espetxeratzeko zigorra, armak edukitzeko zein eramateko debekua eta, hala badagokio, epaileak edo epaitegiak adingabekoaren zein ezgaiaren interesetarako egoki deritzon urtebete eta bost urte arteko epe batez guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaitasuna berezia ezarriko zaizkio honako pertsonengan ohiko indarkeria fisikoa edo psikikoa egiten duenari: bere ezkontidea dena edo izandakoa hala nola harreman afektibo baten bitartez berari loturik dagoen edo egon den pertsona, elkarbizitarrak egon ez bada ere; edo bereak edo ezkontidearenak nahiz bizikidearenak diren naturaren araberrako, adopziozko edo ezkontza-ahaidetasunaren

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

Aurreko paragrafoan aipaturiko ohiko izaera nabarmentzeko egiaztaturiko indarkeria-egintza kopuruari begiratuko zaio, indarkeria hori biktima berarengan edo artikulu honetan jasotako biktima desberdinengan burutu den eta indarkeriazko egintzak aurreko epaiketetan auziperatuta dauden alde batera utzita.»

bidezko ondorengoak, aurrekoak edo neba-arrebak; edo berarekin bizi diren **adingabeak edo ezgaiak** hala nola **ezkontidea zein bizikidearen** guraso-ahala, tutoretza, kuradoretza, harrera edo izatezko zaintzari loturik daudenak ere, **edo beste edozein harremanen bidez sendiaren elkarbizitzaren gunean txertaturik aurkitzen den pertsona;** hala nola **kalte handiagoa jasotzeko arriskuagatik zentro publikoetan zaintzan edo babespean daudenak.** Hori guzti hori, indarkeria fisikoa edo psikikoaren egintzak gauzatu diren delituei edo faltei dagokien zigorren kaltetan gabe. **Zigorrak beren goiko erdian beteko dira indarkeriazko egintzaren bat edo batzuk honako moduetariko batean egiten direnean: adingabekoen aurrean, edo armak erabilia, edo etxebizitza erkidean edo biktimarenean, Kode honen 48. Artikuluan jasotako zigorretariko bat hautsiz, edo izaera bereko badaezpadako zein segurtasunezko neurria edo debekua.**

3. Aurreko **atalean** aipaturiko ohiko izaera nabarmentzeko egiaztaturiko indarkeria-egintza kopuruari begiratuko zaio, indarkeria hori biktima berarengan edo artikulu honetan jasotako biktima desberdinengan burutu den eta indarkeriazko egintzak aurreko epaiketetan auziperatuta dauden alde batera utzita. »

173. ARTIKULUAREN AMAIERA

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- 2002ko irailaren 12an Gobernuak aurkezturiko Delinkuentziaren aurka borrokatzeko Planak lege arloko neurriak barne hartzen dituen jardun multzo bat jasotzen du, besteak beste, hurrengo arlo hauek sendotzera zuzendutakoetan indar berezia eginez: herritarren segurtasuna, etxeke indarkeria borrokatzea eta atzeritarren gizarteratzea sustatzea. Irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa Plan hori egikaritzeko xedatu da eta 2003ko urriaren 1ean indarrean sartu zen.

2.- Etxeko indarkeriari loturik ohikoak diren delituak direla-eta, 11/2003 Lege Organikoaren Arrazoi-zerrendak sistematika hobea emateko helburua agerian uzten du. Horrela, Zigor Kodeko –lesioei buruzko- III Titulutik “Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak” hizpide duen VII Titulura eramaten da, 173. artikularen 2. zenbakia osatuz, zigor-mota honek babestutako ondasun juridikoa hobeto bereizte aldera.

3.- Oraingo edo iraganeko ezkontza-bidezko harremanarekin batera, 173.2 artikuluko berriak honako aldagaia gehitu du: “elkarbizitzarik gabekoa izanik ere, afektibitatearen antzeko harremana”, subjektu aktiboa eta pasiboaren arteko lotura gisa, ohiko indarkeriaren delitua ezartzea ahalbideratuz. Luzapen hori elkarbizitzarik gabeko harreman afektiboa duten edo izan duten pertsonak egindako erasoak sartzeko egin da; izan ere, “errealitateak erakusten duenez, azaldutako jokaera sarritan inoiz elkarrekin bizi izan ez diren bikoteen harremanetan ematen da”. Horrela egin da Legebiltzarreko Talde Sozialistak eta Legebiltzarreko Talde Kataluniarrak, hurrenez hurren, aurkezturiko 177. eta 143. zenbakidun Emendakinen arabera.

4.- 173.2 artikulua biktima edo subjektu pasiboen eremua zabaltzen du, Estatuaren Fiskaltza Nagusiak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak osatutako txostenaren arabera; horrela, honako pertsona hauek barne hartzen ditu:

- 4.1. Subjektu aktiboaren ondorengoak –aurreko araudian zeuden seme-alabez gain- edo bere ezkontidea zein bizikidea; subjektu aktiboaren ezkontidea zein bizikidearen eta aurrekoak; eta naturaren araberrako, adopziozko edo ezkontza-ahaidetasunaren bidezko neba-arrebak, betiere senide horiek familiako elkarbizitzaren gunea osatzen dutenean.
- 4.2. Bestelako harreman baten babespeko pertsonak, horren bitartez familiaren bizikidetzan sarturik daudenean. Horrela eskatzen da gurasoen bidezko loturarik egon ez arren.
- 4.3. Kaltetuak izateko arrisku handiagatik zaintzan edo babespean daudenak, zentro publiko zein pribatuetan.

5.- Erreformatik derrigorrezko zigorrak osagarri gisa armak edukitzeko zein eramateko eskubidea kentzea gehitu du.

6.- Aukerako zigorrak gisa eta adingabekoaren edo ezgaiaren interesari erreparatuz, erreformatik guraso-ahala, tutoretza, zaintza edo harrera egikaritzeko desgaitasun berezia sartu du.

7.- Larriagotutako ekintza gisa –bere goiko erdian dauden zigorrak- honako hauek adierazten ditu:

- 7.1. Indarkeriazko ekintzaren bat edo batzuk adingabekoaren aurrean egiten direnean.
- 7.2. Armak erabilia.
- 7.3. 48. Artikuluan jasotako zigorrerako bat edo badaezpadako zein segurtasuneko neurri bateko debekua hausten denean. Balizko hauek zigorrak eta urruntzeko badaezpadako neurriak urratzen diren kasuei dagozkie.

2.2.3.- 468. artikulua: zigorra edo neurria urratzen deneko delitua

Zigor Kodean indargabeturiko manua	Zigor Kodearen oraingo erredakzioa
<p>Sei hilabete eta urtebete arteko espetxealdiko zigorra jasoko dute honako hauek: beren zigorra, segurtasun-neurria, espetxealdia, badaezpadako neurria, kondukzioa edo zaintza hausten dutenak, betiere askatasunik ez badute. Hamabi eta hogeita lau hilabeteko isuna jarriko da gainerako kasuetan.</p>	<p>1. Zigorra, segurtasun-neurria, espetxealdia, badaezpadako neurria, kondukzioa edo zaintza hausten dutenak sei hilabete eta urtebete arteko espetxealdiko zigorra jasoko dute aske egon ezean.</p> <p>2. Gainerako balizkoetan, hamabi eta hogeita lau hilabeteko isuna jarriko da, Kode honen 57. artikuluko bigarren atalak aipaturiko debekuak hautsi direnean izan ezik. Kasu horretan hiru hilabete eta urtebete arteko zigorra ezarri ahal izango da edo, bestela, laurogeita hamar eta ehun eta laurogei egun arteko gizartearentzako lanena.</p> <p style="text-align: center;"><u>468. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Artikulu honen aurreko testuan 12 eta 24 hilabete arteko isunaz zehatzen zen zigorra, segurtasuneko nahiz badaezpadako neurriak, kondukzioa edo zaintza haustea, zigorraren hauslea espetxeratuta ez dagoenean; izan ere, inguruabar honek bidegabeko egoerak sorrarazi zituen, debekatzeko neurriak ez betetzeak isunaz zehatuz, adibidez, 48. eta 57. artikuluen kasuan.

2.- 48. artikuluari lotutako 57.2 artikularen debeku-neurriak betetzen ez direnean, ezarri beharreko zigorra hiru hilabetetik eta hiru urte arteko espetxealdia edo laurogeita hamar eta ehun eta laurogei egun arteko gizartearentzako lanak egitea izango da, baina egileak askatasunik ez daukanean. Horrelakorik ez egotekotan, Zigor Kodearen 57.2 artikuluari lotutako 48. artikularen debeku-neurriak hausten direnean soilik ezarriko litzateke askatasuna kentzeko zigorra.

3.- Leku zehatzetan bizitzea edo horietara joatea gabetzen duten neurriak, biktimarengana edo bere familiakoengana eta zehaztutako pertsonengana hurbiltzeko edo beraiekin komunikatzeko debekua urratzen diren kasuetan askatasun gabetzearen zigorra ezartzen ahalko da, ekintza hauen egilea askatasunean badago ere, beti ere etxeke indarkeria kasu bat denean. Hala ere, ZK-ren 173.2 art.an zehaztutako edozein pertsoneri aipatutako kasuetatik ezberdinak diren beste batzuetan debeku neurri hauek hartzen badira, ezarri beharreko zigorra 12 hilabetetik 24ra bitarteko isuna izando zen, ZK-ren 468 art.ren 2.atalak erreferentzia egiten dion 57 art.ko 2.atala, biktima ZK-ren 173.2 art.an jasotako pertsona horietako bat denean, ZK-ren 57.1 art.ko edozein zigor motaren mandatuari dagozkion egintzetara mugatzen da.

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

4.- Arestian aipatutako hurbiltzeko, bizitzeko edo komunikatzeko neurriak betetzen ez diren kasuetan, hauek kautelazko neurri moduan hartuak izan direnean, ezin izango da kartzela zigorra ezarri, arestian aipatutako 57.2 art.ak zigor kasuei bakarrik erreferentzia egiten diolako, ez kautelazko neurrien kasuei. ZK-ren 468.2 art.ren idazkera literalak ez du, adibidez, sistemaren barnean 27/2003 Legeak, Uztailaren 31koak, onartutako Babes Aginduaren PKL-ren 544 bis art. bidez ezarritako urruntze kautelazko neurria ez betetzeagatik askatasun gabetzea aplikatzea ahalbideratzen.

2.2.4.- 617.artikulua: tratu txarren falta

Zigor Kodean indargabeturiko manua	Zigor Kodearen oraingo erredakzioa
<p>1. Baliabide edo prozeduraren bidez, beste bati Kode honetan delitutzat jo ez den lesioa eragiten diona sei eta hamabi egun arteko epean etengabe lokalizatua izatearekin edo hilabete bat eta bi arteko isunaz zigortuko da.</p> <p>2. Lesioak eragin gabe, egintzaz beste bat kolpatu edo tratu txarrak ematen dizkiona hilabete bat eta hiru arteko atxiloaldiko zehapenez edo hamar eta hogeita hamar egun arteko isunaz zigortuko da. Ofenditua 153. artikulua aipaturiko pertsonetariko bat denean, hiru eta sei asteburu arteko zehapena edo hilabete bat eta biren arteko isuna jarriko da.</p> <p>Horretarako, ezarritako zehapenak biktima berarengan edo familia-unitatearen kide guztiengan eduki dezakeen eragin ekonomikoa kontuan hartuko da.</p>	<p>1. «Baliabide edo prozeduraren bidez, beste bati Kode honetan delitutzat jo ez den lesioa eragiten diona sei eta hamabi egun arteko epean etengabe lokalizatua izatearekin edo hilabete bat eta bi arteko isunaz zigortuko da.</p> <p>2. Lesioak eragin gabe, egintzaz beste bat kolpatu edo tratu txarrak ematen dizkiona bi eta sei egun arteko epean etengabe lokalizatua izatearekin edo hamar eta hogeita hamar egun arteko isunaz zigortuko da.»</p> <p style="text-align: center;"><u>617. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Zigor Kodearen 153. artikulura igorri da kode horren 617. artikuluan faltatzat zehaturiko jokaera bera, subjektu pasiboa 173.2 artikuluan jasotako pertsonetariko bat denean.

2.- Egitatea delitutzat edo faltatzat harturiko Zigor Kodearen balizko bakarra da, ez ekintzari berari dagokionez, baizik erasoaren subjektu pasiboari begira.

2.2.5.-620. artikulua: mehatxuak, derrigortzea, irainak edo bidegabeko isekagatiko falta

Zigor Kodean indargabeturiko manua	Zigor Kodearen oraingo erredakzioa
<p>Hamar eta hogeita hamar egun arteko isunaren zehapenarekin zigortuko dira honako hauek:</p> <p>1º) Modu arinean beste bat armez edo tresna arriskutsuez mehatxatzen dutenak, edo liskarrean horrelakoak ateratu dituztenak, norbere bidezko babeserako ez bada eta betiere egitateak delitua osatu ezean.</p>	<p>Hamar eta hogeita hamar egun arteko isunaren zehapenarekin zigortuko dira honako hauek:</p> <p>1º) Modu arinean beste bat armez edo tresna arriskutsuez mehatxatzen dutenak, edo liskarrean horrelakoak ateratu dituztenak, norbere bidezko babeserako ez bada eta betiere egitateak delitua osatu ezean.</p>

ETXEKO ETA GENERO ARTEKO INDARKERIAREN AURKAKO GIDA PRAKTIKOA

<p>2º) Modu arinean beste bat mehatxatu, behartu, iraindu edo bidegabeko iseka egiten diotenak.</p> <p>Aurreko bi zenbakietan azaldutako egitateak jazartzeko modu bakarra erasoturiko pertsonak edo bere legezko ordezkariak horiek salatzea da.</p>	<p>2º) Modu arinean beste bat mehatxatu, behartu, iraindu edo bidegabeko iseka egiten diotenak.</p> <p>Aurreko bi zenbakietan azaldutako egitateak jazartzeko modu bakarra ofendituriko pertsonak edo bere legezko ordezkariak horiek salatzea da.</p> <p>Artikulu honen bigarren atalaren balizkoetan, ofenditua 173.2 artikulua aipaturiko pertsonetarikoa bat denean, zehapena lau eta zortzi egun artean lokalizatua izatearena izango da, beti biktimarena ez den helbidean eta berarengandik urrundua, edo gizartearentzako lanak bost eta hamar egun arteko epe batez.</p> <p>Kasu hauetan, artikulu honen aurreko paragrafoak aipaturiko salaketa ez da jarri behar, irainak jazartzeko izan ezik.</p> <p style="text-align: center;"><u>620. ARTIKULUAREN AMAIERA</u></p>
---	---

MANUAREN ARAUKETA BERRIAN AZPIMARRATU BEHARREKO ALDERDIAK

1.- Etxeko indarkeriazko falten azken gotorlekua 620. artikulua da. 15/2003 Lege Organikoaren ondoren, litezkeen etxeko indarkeriazko faltak modu arinean 173.2 artikuluan aipaturiko pertsonetarikoa bat armarik edo tresna arriskutsurik gabe mehatxatzea, behartzea, iraintzea edo iseka egiteari lotutakoak dira. Ofiziozko jazarpenaren printzipioari dagokionez salbuespenari eutsi zaio irain arinen kasurako, kasu horretan ofendituaren edo bere legezko ordezkariaren salaketa eskatzen delarik.

2.- Atxilotzeko zehapena lau eta zortzi egun arteko epe batez etengabean lokalizatua izatearekin ordeztu da. Etxeko indarkeriazko balizkoetarako –ofenditua Zigor Kodearen 173.2 artikulua aipaturiko pertsonetarikoa denean- honako legezko aurreikuspena ezarri da: lokalizatua izatearen zehapena biktimarena ez den eta berarengandik urrun dagoen helbidean bete behar da. Aurreko etxeko atxiloaldiaren ondoreak ekiditea da bere xedea; izan ere, lehengoan zigortuak askatasuna kentzen duen zehapena senitartekoen helbidean bertan bete zezakeen, biktimaren ondoan.

3.- Isunaren zehapena kendu da, bere ordezkari bost eta hamar egun arteko epe batez egindako Gizartearentzako Lanetako zehapena jarritz, etengabean lokalizatua izateko zehapenaren alternatiba gisa.